

# KONTZEJUPETIK

OÑATIKO UDAL ALDIZKARIA

2022ko ekaina / 328. zenbakia

[www.oñati.eus](http://www.oñati.eus)  




# OÑATI feministen topaleku

Euskal Herriko Bilgune Feministaren 20 urteko ibilbidea ospatzeko topaketa egingo da ekainaren 11 eta 12an



# XIX. mendeko Oñati hobeto ezagutzeko DATU BASEA



» XVIII eta XIX. mendeetako udaletxeko akta-liburuak aztertu eta espedienteetan sailkatutako datu-base birtuala sortu du Zelaiak

» 'Oñati XIX. mendean. Hirigintza eta etxegintza' liburua ere argitaratu du. 1800 eta 1900 artean herrigunea nola garatu zen aztertu du bertan

UDALAREN ESKU UTZI DITU DATU-BASEA ETA LIBURUA  
Ekainaren lehen aurkeztuko du lana udaletxean (18:00)

Urte askotan zuekin

© 688 764 299


Portu Kale 5 • Tel: 943 78 12 65 • [www.mapfre.es](http://www.mapfre.es)

Jaione San Miguel Ugarte



**MAPFRE**  
OÑATI





**OÑATIKO HERRIGUNEA 1848an.** XIX. mende haserarako egituratuta zegoen Oñatiko hirigunea, goiko planoak erakusten duen moduan. Garari hartan kale-auzotan antolatuta zegoen, eta bakoitzak bere alkate edo arduraduna zuen, baserri-auzoek bezala.

Hogeita hamabi urtez Oñatiko udaletxeko hirigintza departamentuko teknikaria izan zen Xabier Zelaia Arzak urte luzez egindako lanaren emaitza plazaratu du. Udaletxeko XVIII eta XIX. mendeetako akta-liburuak aztertu eta datu-base birtual bat osatu du, garai hartan Udalak hartutako erabakiak espedienteetan sailkatuta. Gai askori buruzko kontsultak eta ikerketak egiteko bidea eskaintzen duen dokumentua da. Hortik abiatuta, **Oñati XIX. mendean. Hirigintza eta Etxegintza** liburua idatzi du Zelaia berak. 1800 eta 1900 artean Oñatiko hiriguneak izan zuen bilakaera eta herrigunean egin ziren etxegintzako lanak jaso ditu bertan. Zelaia Udalaren esku utzi du egindako lan guztia, herriarentzat interesgarria delakoan. Ekainaren 1ean aurkeztuko du udaletxean (18:00) egindako lana. Aurrerapena egiteko eskatu diogu.

**Nondik nora halako lan bat?**

1977an hasi nintzen administrazioan lanean, —Oiartzunen aurrena, Debagoieneko Mankomunitatean gero, eta Oñatiko udaletxean 1980tik erretiroa hartu arte—, eta nire lehenengo lana izan da, beti, hirigintza, obra eta jardueren artxiboa antolatzea. Berehala jabetu nintzen arlo horretako artxiboa egoki antolatuta egotearen garrantzia, herriaren bilakaeraren ikuspegi orokorra ematen baitu. Baina, jakina, ni egon nintzen udaletan 1940koak ziren espediente zaharrenak.

Dokumentu zaharragoak ere badaude, noski, baina artxibo orokorretan, han-hemenka sakabanatuta.

Beraz, pentsatu nuen interesgarria izan zitekeela denboran atzera egitea, eta espediente fisikorik ez bazegoen ere, espediente birtualak sortzeko aukera zegoela ikusi nuen, udaletxeko akta-liburuak aztertuta, horietan jasotzen direlako udalen erabakiak eta administrazio espedienteak osatzeko hainbat datu, txosten, eztabaida...



Oñatiko herrigunea ez zen askorik zabaldu XIX. mendean, baina bai birmoldatu, herriko plaza neoklasiko berria eraiki baitzen

**XABIER ZELAI**


**Eta noraino iritsi zara atzerako bide horretan?**

Hasieran pentsatu nuen XIX. mendera mugatzea nire lana. Gizaldi interesgarria da: gerrak, erregimen zaharretik modernitateerako jauzia, industrializazioaren hasera, Sancti Spiritus unibertsitatearen gainbehera, herriarentzat izan zituen ondorio latzekin... Gainera, XIX. mendeko dokumentazioa nahiko aberatsa eta zehatza da, eta lanerako aukera ematen du. Baina, azkenean, lanak berak hala eskatuta, atzerago ere jo behar izan dut zenbait gairen zuztarren bila, eta XVIII.-eko hainbat akta ere aztertu ditut.

**Akta-liburuak aztertzeaz gain, bertan aipatzen diren obra eta jarduerak planoetan jaso dituzu.**

Bai, aktetan sarri aipatzen da halakoak edo bestelakoak obrak egin dituela bere etxean, baina zehaztu barik non zegoen etxe hori. Beraz, ezinbestekotzat jo





### ENPARANTZA, 1845

1. Udaletxea, 2. Lazarraga jauregia, 3. Jesuiten kolegioa, 4. San Inazio eliza eta aldameneko etxea, 5. San Migel parrokia, 6. Berzosa etxea, 7. Sosnaren etxea, 8. Irizarriren etxea, 9. Harategi zaharra eta 10. Ballesterosen etxea.

### ENPARANTZA, 1871

1. Udaletxea (1764-1768) 2. Lazarraga jauregia (XV), 3. Pilotalekua (1857) 4. Kafe zaharra (1871), 5. Harategi-arrandegia (1851). 6. San Migel parrokia, 7. Arkupea (1849-1850), 8. Arkupea (1853-1862).

nuen horiek guztiak planoetan kokatzea. Horretarako, guregana iritsi den herriguneko planorik zaharrena —Francisco Coellok 1848an egindakoa—, Mariano Jose Lascurainek 1853an egindako herriko plazaren plano, eta Damian Lizaurrek 1934an egindako Oñatiko herriguneko planoak erabili ditut. Udalaren gaur egungo plano digitalizatuan sartu, eta akta-liburuetan agertzen diren obren datuak erabilita osatu ahal izan ditut 1848, 1871 eta 1900eko planoak.

Hurrengo erronka izan zen plano horietan etxeen garaiko zenbakiak jartzea. Horretarako, 1856 eta 1857ko biztanleen erroldak baliatu nituen; artxiboan dauden errolda orokor zaharrenek dira, eta, zorionez, orduko familiei buruzko informazio asko ematen du, zein kale eta zein zenbakitan bizi ziren zehazten dute, besteak beste, eta horiei esker osatu ahal izan nuen 1848ko plano. Lan korapilatsua izan zen, baina oso baliagarria, pertsonak eta jarduerak planoan

kokatzeko balio izan duelako.

### Eta informazio guzti horrekin datu-base birtual bat osatu duzu.

Bai, XVIII eta XIX. mendeetako akta liburuetan ageri diren 13.195 erabaki jaso ditut bertan. Erabaki guztiak sailkatuta daude, espedienteetan banatuta, elkarren artean lotuta, eta horietako asko planoan kokatuta. Kontsultak edo gai ezberdinen inguruko ikerketak egiteko aukera ematen du.

**Aurreneko ikerketa zuk zeuk egin duzu, eta horren emaitza da ekainaren 1ean aurkeztuko duzun 'Oñati XIX. mendean. Hirigintza eta Etxegintza' liburua. Zer jaso duzu bertan?** Hirigintza mailan Oñatik XIX. mendean izan zuen bilakaera aztertu dut. Egia esan, 1800. urterako Oñatiko hirigunea osatuta zegoen, eta 1950era arte ez zen askorik handitu edo zabaldu, baina birmoldaketa garrantzitsua bat eman zen, herriko

enparantza berria eraiki baitzen 1847-1874 artean, eta prozesu horri leku berezia eskaini diot liburuan, Mariano Jose Lascurain eta Antonio Cortazar arkitektoek egin zuten lan bikaina balioan jarritz.

Horrez gain, Oñatik izan zituen hirigintzako lehen arauak (1848), XVIII-XIX. mendeetan eraiki ziren intereseko etxeak (Baruekoa, Antixena, Etxaluze, Don Pedruena, Agustinoen komentua eta eliza, ospitalea...), eta herriguneko etxeetan XIX. gizaldian egin ziren obrak jaso ditut.

### 1800erako Oñatiko herrigunea osatuta zegoela esan duzu. Nolako zen?

Kurtzetxo eta Kurtzebaltz arteko herrigunea gaur egungoaren oso antzekoa zen. Garai hartan kale-auzotan banatzen zen herrigunea, auzo bakoitzak bere alkate edo arduraduna zuelarik, eta 3. orriko planoan ikusten den moduan, plazatik gora Kale Barria, Santa Marina, Kalegoiena eta Santa Maria kale-auzoak zeu-

## DATU BASEA

XVIII-XIX mendeetako udal akta-liburuetan azaltzen diren 13.195 erabaki jaso ditu Zelaiak datu-basean. Sailkatuta eta elkarren artean lotuta daude erabaki guztiak, eta horrek kontsultak edo ikerketak egiteko bidea errazten du

den, eta plazatik behera Mendiko kalea, San Migel, San Anton eta Kale Zaharra. San Juan eta Le-kunbarri errebalak ere baziren.

### Herriko plazaren birmoldaketa izan zen XIX. gizaldiko obrarik garrantzitsuena. Nolako zen plaza berri aurretik?

4. orriko planoak erakusten duen moduan, forma irregularreko espazio bat zen. Pilotaleku ia plaza erdiraino iristen zen —frontisa gaur egun Gernikako arbola parean zegoen, gero Jesuiten kolegioa eta eliza zeuden, erreka alde banatan, parrokiak ataripe bat zeukan plaza aldeko horman, Zazpibidieta pareraino, eta plazaren bestaldean harategia, iturria eta hiruzpalau etxe zeuden.


### Zein izan zen herriko plaza berria eraikitze arrazoia?

Bi arrazoi nagusi daude. Bate-tik, Isabel II. erreginak 1846an emandako agindua. Erresumako udal handienei herriguneetako plano geometrikoak (1:1.250 eskalan) jasotzea agindu zien, eta horrekin batera, etorkizunean herriko kaleetan egin asmo zituzten aldaketan inguruko plana. Oñatiko udalak Mariano Jose Lascurain arkitektoari enkargatu zion plana.

Bestalde, Oñati Gipuzkoan sartzarekin batera, Ormaiztegi eta San Prudentzio arteko erre-pidea eraikitzea erabaki zen, herri erditik igarotzen zena —Lascurainek berak idatzi zuen proiektua—, eta horrek ere baldintzatu zuen hein batean.

### Parrokiako hormari itsatsita harlanduzko arkupe edo galeria eta honen gainean etxebizitzak eraikitzea erabaki zuten plaza berria diseinatze garaian. Ez al zuen polemikarik eragin?

Bere momentuan ez. Plaza bere osotasunean hartzen baduzu, garai hartan indarrean zegoen estilo neoklasikoan eman zioten enparantzari, garai hartako beste plaza batzuen —Donostiakoa, adibidez— erdua jarraituz, eta ez zen polemika handirik sortu.



**PLAZA ALDATZEKO SAIOA** XX. mendearen erdialdera, Reyes Corcostegi alkateraren garaian, plazara ematen duen parrokiako fatxada bistartzearen aldeko saioa edo ahalegin serioa egin zen. Goiko irudia ere plazaratu zuten, plazak izango zukeen itxura erakusteko



Gaur egun harrigarria badirudi ere, XIX. mendera arte hirigintza ordenantza barik garatu zen Oñatiko herrigunea.

1846an Isabel II. erreginak erresumako udal handienei agindu zien herriguneko plano geometrikoak jasotzea, eta ordukoa da Oñatiko lehen hirigintza ordenantza. Orduan hasi ziren plaza berria eraikitzen

XABIER ZELAIA

1883an bai dago parrokiari itsatsitako etxebizitzak kentzeko eskari bat, sute arriskuagatik, batez ere, baina berehala isiltzen da.

Beranduago, XX. mendean, Reyes Corcostegiren garaian, bai egon zen parrokiako horma bistartzearen aldeko jarrera sutua eta, adibidez, 1958ko Plan Orokorrean plazako etxebizitza horiek ordenazioz kanpo utzi zituzten. Zorionez, niretako, ez zuten aurrera egin ahal izan.

### Lehen esan dugu XIX. mendean zehar Oñatiko herrigunea ez zela ia batere zabaldu, baina salbuespen bat dago: Kasablanka.

Bai Kasablanka ere XIX. gizaldiaren bigarren erdian eratu zen ia osorik. Mende hasieran Olaldeko burdinola eta errota, Santa Katalina ermita, kanposantua eta bizpahiru etxe egongo ziren. Hiruzpalau zurrategi edo kurtiderixa ere egon ziren mendearen lehen erdian.

Baina mendearen bigarren erdian, pospolo fabrikak erakarrira, seguruenez, osatu zen auzunea, Urbietako baserri ingururaino. Liburuan dago jasota zein urtetan eraiki zen etxe bakoitza.

Bestalde, Laterandarren komentua eta eliza ere XIX. mendearen bukaeran (1887-1888)

eraiki zituzten, eta horrek neurri handian baldintzatu zuen orduko Kolegio eta Osteko kaleetako antolamendua.

### Lan handia egin duzu, batez ere datu-basea antolatzen, eta orain Udalaren esku uztea erabaki duzu. Zergatik?

Bai, ez delako gordeta edukitzezko gauza bat. Lehen esan dudan moduan, datu-base horrek gai askoren inguruko kontsultak edo ikerketak egiteko aukera errazten du, eta hori da nire go-goa, norbaitentzako interesgarria eta baliagarria gertatzea.

### Beste hiru liburu ere prest omen dituzu.

Bai, beste hiru gai jorratu ditut, XIX. mendeko akta-liburuetan oinarrituta beti ere: administrazioaren antolamendua, bide-azpiegiturak, eta irakaskuntza ez-unibertsarioa. Liburu hauek ere Udalaren esku utzi ditut, eta aurrerago ikusiko dugu zer egin beraiekin.

### Eta dena euskara hutsean.

Bai. Horrek ahalegin handiagoa eskatu dit eta, gainera, badakit jende gutxiagorengana iritsiko dela, baina, hala ere, ez dut zailtzarik izan euskararen aldeko apustua egiterakoan. ■





Jesus Mari Ugarte eta Rosa Urreta, Goienagusi elkarteko kideak, eta Izaro Elorza, alkatea

Udal goinuaren agintaldi honetarako helburuetako bat, hezkuntza arloari dagokionez, 55 urtetik gorako pertsoneri zuzendutako **Esperientzien Gela** ekimena abian jartzea da, herri programak jasotzen duen moduan. Aukera ezberdinak aztertu ondoren, arlo horretan bailara mailan hamar urteko ibilbidea duen **Goienagusi** kultur elkartearekin lankidetzaz hitzarmena sinatzea erabaki du. Horri esker, urritik aurrera hitzaldiak eta bestelako jarduerak antolatuko ditu Goienagusik Oñatin.

#### LANKIDETZA HITZARMENA

Lankidetzaz hitzarmenaren arabera, honako konpromisoak hartzen dituzte bi aldeek:

#### GOIENAGUSI ELKARTEAK

- Goienagusi kultur elkarteak 2022ko urritik 2023ko maiatzera bitartean bere bazkidegoari begira jorratzen duen hitzaldien ekitaldi bat hamabost egunean behin Oñatin burutzea, bertako herritarrentzat sarrera librekoa izanik.
- Goienagusi kultur elkarteak 2022ko urritik abenduaren 31 bitartean Arrasaten eta Bergaran antolatuko dituen hitzaldietara Oñatiarrek era librean joateko aukera izango dute. Ondoren, Arrasate eta Bergarako hitzaldietan parte hartu ahal izateko ezinbesteko baldintza izango da Goienagusi elkartearen bazkideguta egotea.
- Goienagusi kultur elkarteak trebakuntzarako eta ezagutza konpartitzeko ekintza osagarri bat gutxienez antolatuko du Oñatin.

# Esperientzien Gela

## Oñatira iritsiko da

### 22-23 ikasturtean

► Ekimenaren aurkezpen ekitaldia **ekainaren 7an** egingo da, kultur etxean, 10:00etatik aurrera

► Udalarekin sinatu duen hitzarmenari esker **hamabostean behin** hitzaldi bat antolatuko du Oñatin Goienagusik, urritik aurrera

► 55 urtetik gorako herritarrak biltzen dituen eskualde mailako kultur elkarteak da **Goienagusi**

**ANE MERTZERIA**

- Josteko zerak
- Lentzeria
- Umeen jantziak

Kale Barria, 54 OÑATI

**Cartonajes Arregui, S.A.**

- Kartoi ondulatuaren fabrikazioa
- Enbase eta enbalajeen fabrikazioa

Goribar auzoa. Tfnoak: 78 05 59 / 79 05 09  
Faxa: 78 30 94. 79 Posta Kutxatila. OÑATI

## OÑATIKO UDALAK,

• Udalak 750 €-ko dirulaguntza emango dio kultur elkarteari, eta Oñatin antolatuko diren hitzaldi eta ekitaldi osagarrietarako beharrezko azpiegitura lagako dio.

## GOIENAGUSI ELKARTEA

55 urtetik gorako pertsonei zuzendutako Debagoieneko kultur elkartea da Goienagusi. Arrasaten eta Bergaran antolatu izan ditu orain arte hitzaldi edo jarduera gehienak, baina ikas-turte berriarekin batera Oñatira ere iritsiko da.

Adineko pertsonen ezagutzak zabaltzea, aisialdiaz gozatzea, harreman berriak sustatzea eta gizarte gaiekiko jarrera aktiboa sustatzea dira Goienagusiren helburuak, eta horretarako hainbat jarduera antolatzen ditu urtean zehar, Rosa Urreta lehendakariak azaldu digunez. "Urrian hasi eta maiatzera bitartean hitzaldiak antolatzen ditugu astelehen eta asteazkenero. Askotariko gaiak jorratzen ditugu (osasuna, historia, teknologia, zientzia, euskal kultura, artea...), gaurkotasuneko gaien inguruan beti ere. Batzuk euskaraz izaten dira, eta besteak gaztelaniaz, erdi eta erdi, gutxi gora behera".

Goienagusik harreman estua du erakunde akademiko ezberdinekin (EHU, Deustu eta Mondragon unibertsitateak, UNED, Jakiunde, Elhuyar...) eta, horri esker, goi-mailako hizlariak eta arlo ezberdinetan adituak diren pertsonak ekarri ohi ditu hitzaldiak ematera. "Jendearen asistentzia ere bikaina izaten da; 80-90 lagun elkartzen gara beti", dio Urretak.

Hitzaldiez gain, ikastaroak, tai-



**Ekainaren 7an egingo da Esperientzien Gela ekimenaren aurkezpena kultur etxean. 10:00 Kafea lorategian; 10:30 Alkatearen agurra; 10:40 proiektuaren aurkezpena; 11:15 lankidetzaren hitzarmena**

lerrak, txangoak, bisita gidatuak, ibilaldiak eta hiriburuetan antolatzen diren kultur ikuskizunetarako irteerak ere antolatzen dituzte, kulturalki aberastu eta sozializatzeko asmoz, beti ere.

## HERRITARRAK ANIMATU

Goienagusik 10 urteko ibilbidea egin du, jada, eta gaur egun 212 bazkide ditu. Bazkideek 80 euroko kuota ordaintzen dute —urte osokoa—, ikastaro eta bestelako jarduerak eragindako gastuei aurre egiteko. Arrasate eta Bergarako udalen dirulaguntza ere jasotzen du, eta aurrerantzean baita Oñatikoarena ere.

Goienagusiko lehendakariak animatu egin nahi ditu oñatia-

## Alaitz Kortabarria

Udaleko Hezkuntza batzordeko burua



## Bizitza ikasketa prozesua delako

Txinatarren aspaldiko esaera da: "Ikasteari uzten zaionean, hasten da pertsona zahartzen".

Esperientzien gela Oñatin kokatuta, gazte eta aktibo sentitzen zareten 55 urtetik gorako Oñatiarrek aukera paregabea izango duzue norbere kultura maila aberasten jarraitzeko eta harremanak sendotzeko, hamabostean behin antolatuko den hitzaldi sortari eta bertan sortuko diren kontestuei esker.

rrak egitasmoan parte hartzera. "Oso elkargune ederra da; ondo pasatzeko, entretenitzeko eta, gainera, ikasteko aukera ematen duena".

Jesus Mari Ugarte urtarrilean egin zen Goienagusiko bazkide, eta oso positiboki baloratu du orain arteko esperientzia. "Arrasaten bizi den lagun batek gonbidatuta joan nintzen eta, egia esan, orain arteko hitzaldi eta tailerrak oso interesagarriak izan dira. Beti egoten da zure intereseko edo gustuko gairen bat eta, gainera, aktualitatearekin lotutako gaiak izaten dira, eta oso lagungarria da egunean egoteko". Goienagusiren juntako kidea izango da Ugarte. ■

# Feministen topaleku izango da Oñati ekainaren 11 eta 12an

## Bilgune Feministaren 20 urteko ibilbidea ospatzeko topaketa egingo da

Euskal Herriko txoko askotako feministen topalekua izango da Oñati ekainaren 11-12an, bertan ospatuko baita Bilgune Feministaren 20. urteurrena. Mahai-inguruak, tailerrak, film emanaldiak, kontzertuak... egitarau bete-betea prestatu dute bi egun horietarako. Elkartzeko, ospatzeko, ikasteko, dantzatzeko, jaso eta emateko topaketa izango da, eta aldarri bat nagusituko da oroz gain: Burujabetza Feminista!

### Bilgune Feministaren 20. urtemuga ospatuko duzue Oñatin. Zer dela eta?

Euskal Herriko Bilgune Feminista orain dela 20 urte sortu zen, emakume feminista euskaldunak batzeko helburuarekin. Harrezkero ibilbide oparoa izan du antolakundeak, herriz herri saretu da; egun emakume, bollera eta trans andanak osa-tzen dugu Bilgunea, eta egindako bidea ospatzeko hitzordua jarri dugu Oñatin; ekainaren 11-12an Euskal Herriko txoko guztietako feministak gerturatuko dira gura Bilgunearen bitzita eta borroka ospatzera.

### Zer da Bilgune Feminista?

Bilgunearen anbizioa da Burujabetza Feminista sortzea: emakume\* anitzak saretzen ditu, euskara ardatz izanda, sistema matxista, kapitalista, arrazista

eta kolonialari aurre egiteko. Herriz herri sortzen da eta nazio mailan antolatzen da.

Bitzita duinak aldarrikatzen ditugu guztiontzat, nahi dugun bitzita ona ezin daitekeelako beste pertsona baten zapalkuntza betikotzeko eraiki. Muga eta hazkundearen engainutik aldentzeko proposamena egiten dugu eta justizia sozial eta ekologikoa, elkarrekikotasuna, aniztasunaren aitortza eta zaintza kolektiboa aldarrikatu. Hori horrela, burujabetza bere zentzu zabalean ulertzen dugu: lurraldearen burujabetza, Euskal Herriarena, baina baita gure gorputzena eta sexualitatearena ere.

Euskaraz eta euskaratik bizitzeko eskubidea ere defendatzen dugu: hizkuntza gutxituen duintasunetik abiatzen gara eta euskara guztiontzat eskuragarri

*Burujabetza feminista sortzea da Bilgunearen anbizioa, sistema matxista, kapitalista, arrazista eta kolonialari aurre egiteko*



izateko eskubidea aldarrikatzen dugu.

**Plazako pilotalekua izango da gune nagusia, baina herriko beste espazio batzuk ere erabiliko dituzue. Ez da erraza izango tamaina honetako topaketa bat antolatzea.**

Ehundaka emakume, bollera eta trans espero ditugu herrian eta hori ez da egun batetik bestera antolatzen. Hilabeteak daramatzagu lanean guztia pentsatu eta antolatzen. Udalaren babesa izan dugu hasieratik eta hori eskertzekoa da. Oñatin ere talde sendoa sortu da azpiegitura lanetarako eta hainbat tokitako jendea ari gara elkarlanean: Udaleko Berdintasun Saila, Gaztetxea, Urgain eta Txantxiku Ikastola, Santa Ana Antzokia, Gaztelekua, Kultur Etxea, Ludoteka, Herri Lanak, Taberna laguntzaileak, etab. Guztion artean egingo dugu hau posible.

### Nori daude zuzenduta jardunaldiak?

Topaketak Euskal Herriko emakume, bollera eta trans-entzat dira: alegia, Bilgune Feministak

**CORTABARRIA**  
INMOBILIARI AGENTZIA • GESTORIA

**Etxe eta lokalen gestio orokorrak**

- Administrazioa
- Informazioa
- Salmenta
- Haziendarekin
- Trafikorekin
- Herentziak, eta abar

Kale Barria, 42 behea • Tel.: 943 78 05 87 • email: inkorta@teletel.es

**GARBIKETA ADMINISTRAZIOA ETA KONPONKETAK**

- Era guztietako garbiketak
- Jabegoen eta elkarten administrazioa
- Konponketa orokorrak

**GAK**  
Garbitasunaren usaina

**653 70 45 47**  
Oñati





**Plazako pilotalekua izango da Topaguneko gune nagusia**

sareten dituen askotariko pertsona eta kolektiboak elkar topatu eta elkarrekin gozatzeko dira. Haurrentzako eskaintza berezia egongo da, nahi dugulako eurek ere lekua izan dezaten gure festetan. Nola ez, oñatiko emakumei\* gonbidapena egiten diegu parte hartzera!

**Jende asko espero al duzue?**  
Jendea hasi da tiketak erosten eta itxura ederra du! Oñatin, Arrano Tabernan eskura daitezke tiketak, eta online ere bai, [www.bilgunefeminista.eus](http://www.bilgunefeminista.eus) atarian.

**Lo-lekua ere prestatu duzue.**  
Bai, bi eguneko topaketak izanik, lotarako lekua egongo da kirol-

***Euskal Herriko emakume, bollera eta transei zuzenduta dago Oñatiko topaketa. Herriko emakume guztiak ere gonbidatuta daude, noski. Arrano tabernan eskura daitezke sarrerak***



degian. Bestetik, furgonetarekin datorren jendearentzako hilerri azpiko Ulmako parkinga prestatuko da.

**Zein mezu zabaldu nahi zenuke topaketaren harira?**  
Bilgune Feministaren urteotako borroka eredugarria izan da Euskal Herriko emakumeentzat\*. Hori ezagutzeko aukera paregabea dira topaketa hauek: historiari begiratuta hobeto jakingo dugu nora jo etorkizunean. Topaketetan bilduko garen emakume\* guztion artean gorputzen dugu, egunean egunean, gure herri eta auzoetan Burujabetza Feminista! Elkar ezagutu eta ospatu dezagun!

## EGITARAU ZABALA

Burujabetza feministari buruzko mahai-inguru batekin emango diote hasiera Oñatiko Topaketa Feministari larunbat goizean.

Arratsaldean, burujabetza feminista errealitate bihurtzeko praktika, gogoeta eta sormenerako jarduerak egingo dituzte. Bizitzak erdigunean jartzeaz, zisheteroaraua desobeditzeaz, gatazkaz, borroka ekologistaz eta etxebizitza eskubideaz jardungo dute.

Antzerki, zunba eta soinu-teknikari tailerrak, bertso saioa, *Estallidos* liburuaren aurkezpena, *918 Gau* filmaren emanaldia eta musikarien maratoia ere egongo dira.

Iluntzean ekitaldi nagusia egingo dute eta, ondoren, kontzertuak: *Ginger* (Euskal Herria), *Ira* (Espainia), *Chocolate Remix* (Argentina) eta *DJ Miao* (Euskal Herria).

Igande goizean emakume sortzaile eta artisauen azoka eta herri-bazkaria egingo dituzte, eta Anariren kontzertuak emango dio amaiera Topaguneari.

### SARRERAK SALGAI

Oñatin, Arrano tabernan eskura daitezke sarrerak 40€-tan, asteburu osokoa, edo 25€-tan, igandekoa.



Ramon Irizar kalea, 3  
Tel: 943 71 61 60

✉ [etxian@etxian.net](mailto:etxian@etxian.net)  
[www.etxian.net](http://www.etxian.net)  



Mota guztietako zurgintza-lanak

Garibai 11 • Telf.: 943 78 14 54 • [garibai@garibai-aroztegia.com](mailto:garibai@garibai-aroztegia.com)  
[www.garibai-aroztegia.com](http://www.garibai-aroztegia.com)

# Kale Zaharreko 13 zenbakidun eraikina erosi du Udalak, Emakumeen Etxea sortzeko



Izaro Elorza, Berdintasuna batzordeko burua, eta Jone Arriolabengoa, teknikaria

Kale Zaharreko 13 zenbakidun eraikina erostea onartu zuen udalbatzak maiatzaren 27ko osoko bilkuran, aho batez, Oñatiko Emakumeen Etxea izango dena bertan kokatzeko asmoz.

2018ko Partaidetzazko Aurrekontuetan herritarrek eskatutakoari men eginez, emakumeentzako espazioaren inguruko aurre-diagnostikoa egin zen 2020an. Hainbaten artean, emakumeen elkartzerako eta babeserako konfiantzazko espazio baten beharra berretsi zen prozesu hartan, eta, era berean, mahai gainean jarri zen Udaleko Berdintasun departamentuak kudeatutako zerbitzuentzat leku egoki baten beharra.

Oñatiko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako II. Planak ere jasotzen du,

bestek beste, emakumeen ahaldunderako espazioak sortzeko beharra. "Bide horretan, garrantzia handiko urratsa da hartu berri dugun erabakia. Espazioa badugu. Partaidetzazko prozesu batek eraikiko du", argitu du Izaro Elorza Oñatiko alkatea.

Bada, udal gobernuak 2021. urte bukaeran iragarri zuen Emakumeen Etxearen egitasmoari heltzeko asmoa. Horretarako espazio egokirik

ez zuela ikusita, proiektua gauzatzeko egoki litzatekeen eraikin bat erosteko prozesuari ekin zion. Hala, erosketarako oinarriak adostu ziren Oñatiko Emakumeen Kontseiluaren laguntzarekin, beti ere, diagnostikoan jasotako irizpideak kontuan hartuz.

Proposamen bakarra aurkeztu zen hilabeteko epe-rako zabaldu zen lehiaketa publikoan, Kale Zaharreko 13 zenbakidun eraikinaren

## SAIO INFORMATIBOA

Eraberritze proiektuaren eta parte hartze prozesuaren gaineko saio informatiboa eskainiko du Udalak ekainaren 15ean, asteazkenean, 18:00etan, kultura etxean.

jabeena, alegia. Baldintza pleguan jasotako betebeharrak (prezioa, kokapena, azalera...) betetzen dituela ikusita, etxea erostea erabaki du Udalak 289.500 eurotan. Behe-oina, lehen solairua eta teilatupea edo ganbara ditu eraikinak; 227m<sup>2</sup>-ko azalera, solairuko.

## HURRENGO URRATSAK

Erosketa gauzatu, eraikina berritzea izango da hurrengo urratsa. Bada, berritze eta egokitze lan hori, parte hartze prozesu bidez egin nahi da. Espazio irekia eta bizia izan nahi du Oñatiko emakumeen etxeak, eta horretarako, Udalak garrantzitsutzat du herritarrak hasieratik inplikatzeara.

"Sortu beharreko espazio bat da. Halakoetan, erabiltzaileek, gaian aditu direnek, herritarrek... asko dute esateko. Beharren eta hartan bultzatuko liratekeen dinamiken arabera eraikitako espazioa izan behar du, hala-beharrez", argitu du Oñatiko alkatea. Oro har, asmoa da foro horretan adostea Emakumeen Etxeak izango dituen espazioen banaketa, eta baita funtzionamendua eta kudeaketa eredia ere. ■

 **Mekalki**  
S. Coop. mekanizatuak

Mekanizazio zerbitzu integralak

Tel.: 943 78 19 11 | [www.mekalki.es](http://www.mekalki.es)



## Jabetze Eskolaren balorazio positiboa egin du udaleko Berdintasun sailak

Asteartean (maiatzak 31) egindako itxiera ekitaldiarekin eman zitzaion amaiera 2021/22 ikasturteko Jabetze Eskolari, eta, oro har, urte emankorra izan dela uste du udaleko Berdintasun sailak. Datuei erreparatuz, ikasturte hasieran eskaintako hamalau ikastaroetatik zortzi atera dira aurrera, eta programatutako sei hitzaldiak burutu dira. Parte hartzaile kopurua ere —235 emakume— aurreko urteetako baino handiagoa izan da, eta badirudi Jabetze Eskolak gero eta harrera hobea duela Oñatiko emakumeen artean. "Hasieran kosta egiten zaio jendeari hurbiltzea, baina etortzen denean geratu egiten da", adierazi digu Jone Arriolabengoa, Berdintasun teknikariak.

Bertan behera geratu diren ikastaroak amatasuna, migrazioa eta sexualitatea/erotikarekin lotutakoak izan dira. "Sexualitatea eta plazerarekin lotura duten gaietan, bereziki, asko kostatzen da taldeak sortzea. Lehenago ere egin izan dira saiakerak, baina arrakasta gutxirekin",



235 EMAKUMEK PARTE HARTU DUTE AURTEN JABETZE ESKOLAN



azaldu du Arriolabengoa.

Bestalde, ikasturte honetako hitzaldiek oso harrena ona izan dute —batz besta 40 lagun elkartu dira—. "Urtetik urtera arrakasta handiagoa duen formatua da", dio berdintasun teknikariak; "hizlaria eta gai indartsuak jorratzen direnetan, inpaktua handia da".

**GAZTEENGANA IRISTEA, ERRONKA**  
Aurtengo Jabetze Eskolaren baitan neska gazteei (16-25 urte) zuzendutako bi ikastaro-tailer ere antolatu dira, baina ez dira aurrera atera, eta horixe izango da etorkizunera begirako erronketako bat. "Jabetze Eskolaren formatua eta dinamika zurruneziak dira, behar bada, neska gazteentzat, eta hauekin lan egiteko moduen inguruan hausnarketa egin beharko dugu, baina nahi genuke bide hori urratzen jarraitu", adierazi digu Arriolabengoa.

Jabetze Eskolarentzako espazio egokia bilatzea izango da hurrengo ikasturterako beste erronketako bat, orain arte erabili izan den Euskaldun Berria gela oso hotza geratzen baita negu partean.

Udaleko Berdintasun sailean hasita daude hurrengo ikasturteko Jabetze Eskolako eskaintza prestatzen, erabiltzaileen eta herriko mugimendu feministaren proposamenak aintzat hartuz. Gogoeta feministarako espazioak indartzen, eta espazio egonkor eta tailer edo hitzaldi laburren arteko oreka bilatzen jarraitzeko asmoa adierazi dute. Herriko jaien ostean jarriko da martxan berriz ere Jabetze Eskola. ■

# beh**e** barrua

Elkar Hezi

22-23 ikasturtea berrikuntzekin dator...

**ere**in **izan** **ekin**

0-6      0-99      0-99

**guneak**

Ebidentzia zientifikoen bermaturiko HEZKUNTZA JARDUERA ARRAKASTATSUAK: denontzako ikaskuntzaren kalitatea

Ikas Komunitateen Sarea

**EKAINEAN ZEHAR**  
**Bisita pertsonalizatuak**

idazkaritza@elkarhezi.eus  
943 71 82 72    688 621 195  
www.elkarhezi.eus

# TRAUTI ELKARTEA

## 10 urte irisgarritasunaren alde lanean

Bi urteko etenaren ondoren, **Trauti Eguna** ospatuko da berriz ere, **ekainaren 25ean**



Pandemiak eragindako bi urteko etenaren ostean, TRAUTI EGUNA ospatuko da ekainaren 25ean, mugikortasuna mugatua duten pertsonen arazoak jendeari erakutsi, horren inguruko kontzientziazio lana egin eta, azken batean, irisgarritasuna ahalik eta gehien bermatzeko helburuarekin.

Aurtengo Trauti Eguna, gainera, berezia izango da, elkarteak 10 urte betetzen baititu. Hamar urteko ibilbidea, herrian dauden oztopo arkitektonikoak ezabatu, eta herritar guztientzako herri erosoago bat eraikitzeko ahaleginean.

"Herritar guztientzat", azpimarratzen dute Trautiko kideek, "oztopoak kentzea herritar guztien mesederako baita, ume-kotxeekin dabilzanentzat, adineko pertsonentzat... Guk sentsibilitate berezia dugu oztopoak identifikatzeko, baina, azken batean, oztopoak kentzea herritar guztien onerako da. Horren

► Gorpil-aulkian edo begiak estalita, makila baten laguntzarekin mugitzeak dituen zailtasunak esperimentatzeko aukera egongo da Trauti Egunean

**Catalana Occidente** **Mikel Egaña Urrutia**  
Aseguruak

Eskatu aurrekontua kompromezu gabe:

- ✓ Heriotza
- ✓ Autoak
- ✓ Bizitza
- ✓ Istripuak
- ✓ Ontziak
- ✓ Osasuna
- ✓ Exebizitza
- ✓ Aurrezkia
- ✓ Laborantza

Helbidea: Motxon 5, behea  
638 16 79 84  
mikel.egana@agentes.catalanaoccidente.com

**PINTURAS**  
**URBIA**  
**MARGOAK**

Arantzazuko Ama, 19A - 1A • 652 71 08 37 eta 943 71 62 15



adibide da kiroldegiko igerileku berrian egokitu den arrapala. Proiektua egin zenean Udalak gurekin kontsultatu zuen eta, egia esan, herritar askok esaten digute orain zein ondo etortzen zaien arrapala beraiei ere".

Hutsune handi bat ere egongo da aurtengo Trauti Egunean, elkartearen sortzaile eta sustatzaile nagusietako bat izan zen Rafael Kortabarria faltako baita, baina ziur gaude haren oroitza-pena oso presente egongo dela bertan biltzen direnen artean.

### TRAUTI EGUNA

Ekainaren 25ean herriko plazara aterako dira Trautiko kideak, beraien jardunaren eta helburuen berri ematera. Aurten, esku-orri bat ere banatuko dute, herri mailan ikusten dituzten oztopo, arazo eta jokabide desegokiez ohartarazteko.

Horrez gain, bi ibilbide ere prestatuko dituzte plazan, eta gurpil-aulkian edo begiak estalita, makil baten laguntzarekin egiteko aukera egongo da, elbarrituek egunerokoan dituzten arazoak nork bere azalean bizi eta esperimintatzeko.

Gainera, Trauti elkarteak erosi duen *Joellette* motako aulkia ikusi eta probatzeko aukera ere egongo da. Elbarrituak mendira edo hondartzara eramateko erabiltzen den aulki egokitua da.

Horren harira, Trauti elkarteak ikastaro bat antolatuko du uztailea hasieran, herritar guztiei irekia, mota honetako aulkiak egoki erabiltzen ikasteko. Helburua da herritar talde bat trebatzea aulki hauen erabileran, etorkizunean Trautik antola ditzakeen irteeretan lagundu ahal izateko. Trauti Egunean bertan emango dituzte ikastaroaren inguruko xehetasunak.

### 10 URTEKO BALANTZEA

Gainerakoan, balantzea egiteko unea ere izango da Trauti Eguna. Esan bezala, 10 urteko ibilbidea egin du elkarteak eta, oro har, balantzea "positiboa" dela diote elkarteko kideek, "oraindik hobetzeko asko dagoen arren,



**JOELLETTA AULKIA.** Trauti elkarteak erosi duen Joellette motako aulkia ere ikusgai egongo da Trauti Egunean. Elbarrituak mendira edo hondartzara joateko erabili ohi den aulki egokitua da. Uztailean, aulki mota hau egoki erabiltzen ikasteko taller bat antolatuko du Trautik, herritar guztiei irekia.



### APARKALEKUAK ERRESPETATU.

Elbarrituentzako aparkalekuak errespetatzearen garrantziaz azpimarratuko dute beste behin Trauti Egunean, ondoko irudikoa bezalako kartelak ipiniz

jakina".

Bi lan-ildo nagusi ditu Trauti elkarteak bere jardunean. Alde batetik, Udalarekin elkarlanean aritzea, herrian dauden oztopoak kentzen joateko, eta hirigintza proiektu berrietan irisgarritasun legea egoki betetzen dela ziurtatzeko.

Ildo horretan, aitortzen dute, Oñati asko hobetu dela azken urteetan. "Egin dira inbertsio batzuk irisgarritasun mailan, eta beste herri batzuekin alderatuz, Oñati oso aurreratuta dago".

Baina, tamalez, oraindik ere puntu beltz ugari dago herrian, gogoratzen dute Trautikoek. Osasun zentroa da horietako bat. "Gure lehenengoetako eskaera

izan zen, eta oraindik konpondu gabe dago. Sarrera nagusia ez da irisgarria, igogailua txikiiegia da gurpil-aulkia eta laguntzailea sartzeko, aparkalekura ematen duen atea itxita egoten da... Horregatik, berriro luzatu diogu eskaera Osakidetzari, Udalaren babesarekin, Oñatiko osasun zentroak irisgarritasun baldintzak bete ditzan eskatuz".

Notariotza da beste puntu beltz bat, Trautikoaren esanetan. "Gu ezin gara notariotzara joan eta, notarioa bera irteteko prest egoten dela badakigun arren, ez dugu uste irtenbide bidezkoena denik. Ez dugu atzeko aterik nahi", diote. "Herriko komertzio bati irisgarritasuna bermatzea



**Irisgarritasun mailan asko hobetu da Oñati, baina oraindik ere badaude puntu beltzak: osasun zentroa, notariotza, Azkoagain...**

**TRAUTI ELKARTEA**

eskatu behar badiogu, uste dugu zerbitzu publikoek eredu izan behar dutela, eta ez dira".

Azkoagain futbol zelaia ere gorriz margotuta omen dago Trautikoen zerrendan. "Ez da irisgarria", gogorarazten dute, "ez bertara iristeko bidea, ezta barruan ibiltzekoa ere".

Herriko denda, taberna eta zerbitzuak irisgarriak izatearen garrantziaz ere ohartarazten dute Trautikoek. "Azken batean, gu ere bezero potentzialak gara, baina herriko komertzioetan erosi ahal izateko irisgarritasuna behar dugu, eta hasieran gastu bezala ikus daitekeena, luzera begira inbertsioa izan daiteke".

Ildo horretan, Udalarri eskatzen diote jarduera baimenak eman aurretik ziurtatu dezala lokalak irisgarritasun legea betetzen duela. "Azken batean pentsatu behar da lege eta arau horien atzean pertsonak gaudela".

#### KONTZIENTZIAZIO LANA

Sentsibilizazio mailan ere poliki poliki hobera goazela uste dute Trautikoek, baina elbarrituentzako aparkalekuak errespetatzearen garrantzia azpimarratu nahi dute, beste behin. "Askotan ikusten dugu mugikortasun arazorik ez duen jendea kotxea uzten aparkaleku hauetan, seme-alaben bila kiroldegira doazenean, edo kultur etxera liburu bat uztera, adibidez. Baina gerta daiteke momentu horretan elbarritu batek behar izatea aparkaleku hori eta, jakina, okupatuta baldin badago, etxera bueltatu behar izatea. Kontuan eduki, guk ezin ditugula aparkaleku arruntak erabili, lekua behar dugulako gurpil-aulkiak kotxetik ateratzeko. Beraz, guretako oso



Trautiko kideak ikasle talde batekin, egunerokoan aurkitzen dituzten oztopoen inguruko lanketa egiten



#### OSASUN ZENTROKO IRISGARritASUNA.

Trauti elkarteak, Udalaren babesarekin, eskaera bideratu dio Osakidetzari, Oñatiko osasun zentroak irisgarritasun mailan dituen gabeziak konpontzeko eskatuz.

garrantzitsua da aparkaleku horiek errespetatzea. .

Herritarrak sentsibilizatzeko ahalegin horretan, ikastetxeetara joaten hasi dira berriz ere Trautiko kideak, pandemia aurretik egiten zuten bezala. "Herriko hiru eskoletako 5. mailako neska-mutikoeekin egiten ditugu lanketa saioak. Eguneroko bizitzan Oñatiko kaleetan aurkitzen ditugun oztopo eta zailtasunez berba egiten dugu eta, egia esan, oso saio aberasgarriak izaten dira. Begiak irekitzen zaizkie, enpatia erakusten dute, eta uste dugu lanketa inportantea dela etorkizunera begira". ■



Trautiko zenbait kide Zarautzera egindako irteera bateko irudia / TRAUTI

**EGUR-LAN**  
AROSZTEGIA  
LIMABAR S.A.L.  
BEREZAO INDUSTRIALDEA 20560 OÑATI (GIPUZKOA)  
TEL / FAXA: 943 78 14 59 limabarsal@gmail.com  
www.egur-lan.es

**smk**  
san miguel kooperatiba  
943 781 217  
kale barria 8 - 20560 oñati  
www.sanmiguel.coop



**BEHAR DUZUN**

**TARIFA MEREZI DUZUN**  
**PREZIOAN**

**FIBRA 300Mb**

**+ MUGIKORRA 25GB**

**+ DEI MUGAGABEEKIN**

**39,90€** /HILEAN  
BEZ barne  
Linearen kuota  
barne.

**BETIRAKO**

ETA GEHITU  
**BESTE LERRO BAT 25GB**

**1€/HILEAN**

LEHENENGO 6 HILABETEETAN



**ETORRI ETA EZAGUTU:**

**LIZKER**  
INFORMATIKA

ATZEKO KALE 32 | OÑATI, GIPUZKOA  
TELF: 943 090 600



BEZ barne Eskaintza 2022/06/30ra arte salmentetarako balio du Fibra 300Mb-ekin Tarifa PLUS 25GB-ekin kontratatzean 39,90 €/hileko betiko linearen kuota barne. 181,5ko deskontua 3 hilabeteke egonaldiaren menpeko instalazioan. Tarifa PLUS 25GB PROMO 1 €/hilean 6 hilabetez, gero 8 €/hilean; gehienez lerro bat kontratu bakoitzeko. 2020ko bigarren seihilekoan Espainiako zuntz sarerik azkena, nPerfek egindako ikertea independentearen arabera. Kontsultatu gainerako baldintzak [www.masmoviles.com](http://www.masmoviles.com) webgunean.

**MÁSMÓVIL**

AHORRA, SIN MÁS



Antixena gaztetxearen 10. urteurrena antolatzen ari diren gazteetako batzuk

# Antixena Gaztetxeak 10 urte

## EKAINAREN 18AN OSPATUKO DUTE URTEMUGA BOROBILA

Berez, irailaren 5ean beteko dira hamar urte *Tantaz tanta olatua* ekimeneko gazteek Antixena okupatu zutenetik, eta abenduaren 22an, gaztetxea inauguratu zutenetik. Horregatik, normalean abenduan antolatu ohi dituzte urtemuga festak, baina aurtengoa borobila izanik, ekainera aurreratzea erabaki dute. "Aurten, gainera, Oñatiko Gaztetxe Mugimenduak 40 urte betetzen ditu, eta gure aurreko belaunaldiek gaztetxearen alde egindako lana eta borroka ere gogoratu eta eskertu nahi dugu", adierazi dute gaztetxeko egungo asanbladako kideek.

Sasoiko eta bizi-bizirik iritsi da Antixena gaztetxea 10. urteurrenera. Duela lau bat urte belaunaldi erreleboa eman zen; 2012an Antixena okupatu eta martxan jarri zutenek utzitako lekua beste hainbat gaztek bete zuten, eta gaztetxeak oso bizirik egoten jarraitzen du, herrian ez ezik, Euskal Herri mailan ere erreferente bilakatzeraino.

Egun gaztetxeko asanblada osatzen duten gazteek ez zuten okupazioan parte hartu, eta martxan zegoen proiektu batera batu ziren, Antixena bezalako eraikin batean, eta horrek egonkortasuna bermatu die. "Gure aurreko belaunaldiek, Kasablanka eta San Martingo garaikoeak, lan handia egin zuten gaztetxearen alde, baina beti borrokan egon behar izaten zuten Udalarekin, eta hor xahutzen zuten indar gehiena.

Oraingo gaztetxearen berezitasuna, berriz, egonkortasuna dela esan daiteke, arazorik ez edukitzeak —pandemia garaian Ertzaintzarekin izandakoa salbu— eta erakinak berak ematen digun egonkortasuna. Horrek, noski, aukera ematen digu gure jarduna eta indarrak sormenera bideratzeko" adierazi digute asanbladako kideek.

Kontzertuak, hitzaldiak, tailer eta ikastaroak, liburu aurkezpenak, zine emanaldiak, bertso saioak, mendi irteerak... ezin konta ahala dira Antixena gaztetxeak urtean zehar antolatzen dituen ekitaldiak, urrian hasi eta maiatza bitartean. Hortik aurrera auzoetako jaiak errespetatu ohi dituzte.

*Oñatin ez ezik, Euskal Herri mailan ere erreferente bilakatu da Antixena*

*Kultura eta sormena lantzeko ez ezik, borrokarako gune ere bada gaztetxea*

### GAZTETXEA HERRIARENA

Kultura eta sormena lantzeko ez ezik, borrokarako gune ere bada gaztetxea, gogorarazten dute asanbladako kideek; "gazte problematika eta bestelako gai sozio-politikoak modu kritikoa jorratu eta parekidetasunean aurrera egin nahi duten herriko eragile guztiek dute lekua Antixenan, bilerak egiteko edo beste edozertarako. Gaztetxea herriarena da, eta zerbait antolatu edo proposatu nahi duten eragile edo norbanakoeak ostiralero (18:00) egiten dugun asanbladara gerturatu besterik ez daukate".

Ildo horretan, dei egiten diete herriko gazteei gaztetxera



# Oñatiko Gaztetxe Mugimenduaren 40. URTEURRENA

Antixena gaztetxearen 10. urtemugaz gain, Oñatiko Gaztetxe Mugimenduaren 40. urteurrena ere betetzen da aurten, eta egungo asanbladak gogoratu eta eskertu egin nahi du aurreko belaunaldiek gaztetxearen alde egindako lana eta borroka.

Ildo horretan, ekainaren 18ko ospakizunen artean bizikleta-poteoa egingo dute Oñatin 40 urte hauetan izan diren gaztetxe ezberdinak gogoratzuz: **Gaztetxe zaharra** (Aita Madina / Kantonoste, 1982-1986), **Kasablanka** (2005eko uztaila-azaroa), **San Martin Azpi** (2005eko abendua-2006ko otsaila), **San Martin** (2008-2012) eta **Antixena** (2012-).



**Aurreko belaunaldiek gaztetxearen alde egindako lana eta borroka gogoratu eta eskertu nahi dugu**

hurbil daitezten. "Denon ekarpenak dira beharrezkoak proiektu hau eraikitzeko; zenbat eta jende gehiago elkartu, orduan eta aberatsagoa izango da".

"Gazteen arteko harremanak sendotu eta harreman berriak egiteko aukera ematen du gaztetxeak", gaineratzen dute bertako kideek. "Izugarrizko bizitasuna dago hemen eta edozein gazte gustura sentitzeko moduko espazioa da hau. Eraikina bera oso ederra da, tamaina aldetik egokia, eta gauza polit asko sortzeko aukera ematen du. Denok dugu geure gustuko edo intereseko jarduerak antolatzeko aukera".

Eguneroko dinamikari dagokionez, autogestioa eta auzolana dira gaztetxearen erregai nagusiak. Astero biltzen den asanbladak kudeatzen eta koordinatzen du gaztetxeko dinamika, eta lantalde ezberdinetan banatzen dituzte ardurak: taberna, sukaldea, garbiketa, diru-zaintza, komunikazioa, talde teknikoak... ■

## ANTIXENAK 10 URTE / Egitaraua

### EKAINAK 18

**10:30** Zuhaitz landaketa eta taila aldaketa Gaztetxean

**11:00** Gaztetxearen aldeko topa eta bizikleta-poteoa

**14:30** Bazkaria Irunberri plazan. Tiketak Ongi eta Arrano tabernetan salgai 15 €-tan (10€ ikasle eta langabetuentzat). Menu barazkijalea aukeran.

**17:00** Jolasak

**19:00** Elektrokela elektrotxarangarekin kalejira

**22:30** Kontzertua: Keike + Lukiek + Lizartxo + Berebiziko Djak.

**DOMEKAN / 12:00** Rukula taldearen kontzertua gaztetxean

### ASTEKO EGITARAUA

**EKAINAK 14:** 'Arroz urez' liburuaren aurkezpena, Mikel Antzarekin (Antixenan, 18:30).

**EKAINAK 15:** Bizikleta apainketa (Antixenan, 17:00).

**EKAINAK 16:** Kontzertuak: Etxekalte + Habi (Antixenan, 21:30).

**EKAINAK 17:** Txosnagunearen muntaia (17:00). 'Borroka da bidea' komikiaren aurkezpena (Antixenan, 20:00).

**EKAINAK 18:** Zorionak Antixena! Egun osoko egitaraua

**EKAINAK 19:** Rukula taldearen kontzertua (Antixenan, 12:00).

## TAILERRA

### DANTZA FAMILIAN

**EKAINAK 26, ANTIXENA GAZTETXEAN, 11:00**

Gaztetxearen X. urteurrenaren harira antolatuko diren ekintza berezien artean, DANTZA FAMILIAN tailerra egingo da. Oihana Vicente dantzariak gidatuko du saioa.

Jolas eta dantza-mugimendu ezberdinen bidez, familia giroan ondo pasatu eta gozatzea izango da helburua. Ez dago adin mugarik. Izen-ematea dohainik da eta helbide honetara idatzi behar da:

[hauretaguraso@gmail.com](mailto:hauretaguraso@gmail.com).

Tailerraren ostean jatekoa eta edatekoa egongo da.



Gezalaga  
Margoak

Tel. 616 277 999 - 616 388 396 | [gezalagamargoak@hotmail.com](mailto:gezalagamargoak@hotmail.com)

## » PARTAIDETZAZKO AURREKONTUAK

Proposamenak  
lehenesteko  
unea iritsi da**ANIK ZUBIZARRETA**

Udaleko Partaidetza eta Garapen Komunitarioa batzordeko burua

Herritarrek egindako **213 proposamenen** artean lehenetasunak zehazteko saio irekiak egingo dira **ekainaren 7an eta 9an**

Oraindik bizpahiru zerbitzu eta dendatako kutxatako proposamenak zenbatzea falta bazen ere, aldizkaria ixteko orduan 213 ziren Partaidetzazko Aurrekontuak-2023 / 2024 prozesuko lehen fasean herritarrek aurkeztutako proposamenak.

Proposamen gehienak (%64) webgunearen bidez jaso dira, %28 herriko hainbat gunetan ipinitako kutxetan, %5 kalez kale egindako informazio saioetan, eta %3 tailerretan.

Askotarikoak dira proposamenak, baina azpimarratzeko da mugikortasunari buruzkoak direla %25, irisgarritasunaren ingurukoak %16, azpiegitura bati erreferentzia egiten diotenak %9, kirol eta aisialdiarekin lotutakoak %7, eta jolas parkeei buruzkoak %6. Kultura, berdintasuna, ongizatea, herriko paisaia, hiri altzariak eta ingurumenarekin lotutakoak ere badaude, besteak beste.

Dena den, hurrengo egunetan errepikatutako proposamenak batu eta antzekotasuna dutenak multzokatu eta antolatu egingo dira.

Maiatzaren 31 eta ekainaren 1ean bilduko da prozesuaren jarraipenerako Mahai Politikoa, alderdi bietako ordezkari osatua, eta bertan aztertuko da jasotako proposamenek

aurrez ezarritako baldintzak betetzen ote dituzten.

**LEHENETASUNAK ZEHAZTEKO FASEA**

Ekainarekin batera, lehenetasunak zehazteko fasea igaroko da prozesua eta, hemen, aurrez zehaztutako irizpideen arabera egingo da bigarren deskartea. Irizpide horiek aplikatuko dira proposamenez proposamen eta baita osotasunari begira ere, aurrera egiten duten proposamenen multzoa aukeratzeko. Horretarako, bi tailer egingo dira ekainaren 7 eta 9an. Lehen egunean proposamenen erdia landuko dira, eta bigarrenean gainontzekoak.

Herritarrek bi tailerretan parte hartzea gomendatzen du Udalak, baina ezin duenarentzako, hurrengo egunetan azalduko da ohiko komunikazio kanalen bidez egun bakoitzean zein gai landuko den.

Udaleko Partaidetza sailak lehenengo fasearen balorazioa oso positiboa egin du. Eskerrak eman nahi dizkie proposamenak egiteko tarte hartu duten herritarrei, eta animatu egin nahi ditu herritarrek lehenetasunak definitzeko ariketan parte hartzera.

*"Herritar guztiak daude gonbidatuta ekainaren 7-9ko saioetara"*

Lehenetasunak zehazteko faseak garrantzia berezia dauka prozesuan. Izan ere, jasotako proposamenetatik balorazio teknikoko fasea zeintzuk pasako diren aukeratzeko da. Leheneste ariketa honetan geroz eta jende gehiagok eta anitzagoak parte hartu, orduan eta aberasgarriagoa izango da emaitza. Eta aukera emango du proposamen horiek, eskaera indibidualetatik harago, justuagoak eta onuragarriagoak izateko, eta baita herritar gehiagoren nahi edota beharrei erantzuteko ere. Horregatik, dei egiten diegu herritarrei ekainak 7 eta 9ko saioetara gerturatzeko eta euren aletxoak jartzeko. Ariketa edonork egiteko modukoa izango da.

**LEHENESTE FASEKO SAIO IREKIAK**

Jasotako proposamenenak baloratu eta zehaztutako lehenetasunen arabera, aurrera egingo dutenak aukeratzeko bi bilera egingo dira **ekainaren 7an eta 9an**, Euskaldun Berria gelan, 18:00etan. Herritar guztiei irekiak dira.

**TABERNA • JATETXEA**  
Bidebarrieta 6  
Tel.: 943 71 62 96  
20560 OÑATI

**FAGOR**  
INDUSTRIA TALDE KOOPERATIBOA





2022-2023  
ikasturterako  
IZEN EMATEA  
ZABALIK!

4 urtetik aurrera



Ingeleseko Akademia  
Listening Speaking Reading Writing



Maite Alostui • Ane Arabaolaza

**esperientzia** • **ezagutza** • **freskotasuna**

Cambridge azterketa  
bertan egiteko aukera!

Arantzazuko Ama, 3 behea • 943 53 36 57-685 986 003 • 4sgoiena@gmail.com



## Olakuako 13-14 eta 15 etxeen inguruak irisgarri egiteko proiektua enkargatu du Udalak

Eskatutako aurrekontuen artean, eskaintza ekonomiko onena aurkeztu duen A2B Arquitectos enpresari esleitu dio Udalak Olakuako 13, 14 eta 15 etxe-blokeen inguruko urbanizazioa berritzeko proiektua idazteko lana, 11.343 €-tan (BEZ barne). Goiko planoak erakusten duen moduan, aipatutako atarien inguruko oinezkoen ibilbideak, zebra-bideak eta mugikortasun urria duten pertsonentzako aparkalekuak irisgarritasun aratuera egokitzea da proiektuaren helburua, edota arau guztiz bete ezin den kasuetan, gaur egungo egoera nabarmen hobetzea. Enpresak bi hilabeteko epea du proiektua idazteko.

## Hasi dira lanak Olakuako 4. arean



Argazkian ikusten den moduan, hasi dira Olakuako 3-A / 3-B eta 4-A / 4-B atarien inguruko oinezkoen ibilbideak irisgarri egiteko lanak, A2B enpresak idatzitako proiektuaren arabera. Ugarte eraikuntza enpresa ari da lanak egiten, 209 mila euroko aurrekontuarekin, eta 16 asteko epea aurreikusten da lanak burutzeko.

### TORREAUZOKO ZUBIA

Udalak Girder enpresari esleitu dio 11.500€-tan (BEZ kanpo) Torreauzoko zubian, bidegorriari jarraipena emango dion zubi paralelo bat eraikitze exekuzio proiektua idazteko lana. Puntu horretako trafiko eta segurtasun arazoei irtenbidea ematea da helburua.

## Ekainaren 11n irekiko da bainu denboraldia Usakon

Ekaineko lehen astean ikuskatuko dute Buceo Euskadi enpresako urpekariek Usakoko putzuaren ikuskapena, eta dena ondo badago, hilaren 11n hasiko da bainu denboraldi ofiziala Usakon. Hurrengo hiru hilabeteetan (irailaren 11ra arte) sorosle zerbitzua ipiniko du Udalak bertan, egunero, astelehenetik igandera (15:00-21:00) eta komun zerbitzua ere egongo da. Eltzia parteko ur txorrotak ere ekainaren 11n ipiniko dira martxan (11:00-21:00).



## I. Arkeotopaketak burutu dira Oñatin, erreferente bilakatzeko helburuarekin

Euskal Herriko Unibertsitateko Historiaurreko Ikerketa Taldeak eta Oñatiko Udala-Arrikrutzeko Kobak sinatutako lankidetzaren hitzarmenaren baitan, lurraldeko ondare arkeologikoa eta paleontologikoa babestu eta ezagutzera ematea helburu duten I. Jardunaldi Arkeologikoak egin dira maiatzaren 25etik 27ra, 'Oñatiko Unibertsitatea' I. Arkeotopaketa izenburupean. Urtero topaketa bat antolatzea da asmoa, Oñati ikerketa paleo-arkeologikoan erreferentziatzeko leku bihurtzeko.

## Etxez-etxeko laguntza zerbitzua kontratatze deialdia

Oñatin etxez-etxeko laguntza zerbitzua emango duen enpresa kontratatze deialdia egin du Udalak. Kontratuaren hasierako iraupena 2 urtekoa izango da, baina beste 2 urteko luzapena aurreikusten da (eta 9 hilabeteko salbuespeneko luzapena). Guztira 5.169.660 €-tan finkatu da kontratuaren balio zenbatetsia. Udalaren web atarian kontsulta daitezke deialdiaren oinarri guztiak.

## Ekintzaileei zuzendutako tailerrak

Mankomunitateko Garapen Agentziak ekintzaileei zuzendutako bost tailer antolatu ditu. Hauek dira ekainean zehar egingo direnak: '**Negoio txikiak abian jartzea**' (ekainak. 3), '**Negoio txikien oinarrizko kudeaketa I**' (ekainak. 6), '**Negoio txikien oinarrizko kudeaketa II**' (ekainak. 10) eta '**Negoio txikien fiskalitatea**' (ekainak 13 eta 17).





## Herri proiektua osatzeko prozesu berria abiatu du EH Bilduk

Duela lau urte abiatutako *Haritsu* prozesuaren dinamikari jarraipena emango dio EH Bilduk, arloz arlo herriko eremu ezberdinetan lanean diharduten pertsonen ekarpenak jaso eta koalizioaren jarduna gidatuko duen herri proiektua eraikitzeko asmoz. Hala jakinarazi zuten, maiatzaren 14ko herri batzarraren ostean emandako prentsurrekoan. Orain arte egindako lanaren balantzea egin ostean, etorkizuneko erronka nagusiak identifikatu eta horiei erantzuteko prozesua osatuko da, horretarako zehaztu diren zortzi lantaldeen bidez (Politika Sozialak, Sozioekonomia, Lurralde Antolaketa, Kirola, Kultura eta Euskara, Hezkuntza, Gazteria eta Berdintasuna). Bide batez, udal hauteskundeetara begirako herri programa eta hautagai zerrenda ere aterako da prozesu honetatik, baina argi utzi nahi izan zuten, dinamika hau ez dela hauteskunde ziklora mugatzen. "Lan egiteko eta politikan jarduteko modu berri bat sustatu nahi dugu, herritarrekiko etengabeko harremanean oinarritzen dena".

Beraz, animatu egin nahi dituzte herritarrek bileretan parte hartzea eta ekarpenak egitera (onati@ehbildu.eus). "EH Bilduk 11 urte daramatza Euskal Herriko agertoki politikoan, eta herritarrekin batera egindako lanari esker, Oñati herri aurrerakoiagoa, parekideagoa, jasangarriagoa eta biziagoa da", adierazi zuten. ■

## Kale Zaharreko arropa biltegian ez dute material gehiago jasoko

Biltegiaren koordinazioaz arduratuko den pertsona edo talderik azaldu ez denez, biltegia ixtea erabaki dute Hermansoloña taldeko kideek. Biltegian pilatuta dauden arropa eta bestelako materiala banatzen jarraituko dute, Caritas, Zehar-Errefuxiatuak, Hotz-Oñati eta Oñatiko Sahararren Komunitatea bezalako elkarten bidez, baina ez dute material gehiago jasoko maiatzaren 31tik aurrera.



## Greziako errealitate migratzaileak

EREI Elkartasunerako Elkartek Greziako errealitate migratzaileen inguruan aurrera eramandako ikerketa lanaren emaitzak partekatuko ditu hitzaldi-solasaldi baten bitartez, Grezian bizi diren pertsona errefuxiatu eta migratzaileen zuzeneko parte hartzearekin (online bidez) eta genero ikuspuntu batetik. Greziako egoera ikustarazteaz gain, fluxu migratzaileen atzean dauden arrazoiak partekatu eta prozesu migratzaileetan sortzen diren ekimenak elkarbanatuko dira.

**Eguna:** Ekainak 21, 19:00etan  
**Lekua:** Kultur Etxea

## 3.000€ banatuko ditu Txandak saritan



*Udaberrian Oñatiko dendak kolorez janzen dira izenburupean, ekainaren 8ra arte luzatuko den promozio*

kanpaina jarri du abian Txanda dendarien elkarteak. Hala, erosketak egiten dituzten bezeroek boletoak eskuratuko dituzte eta 20 edo 40 euroko sariak jaso ahal izango dituzte. Denera, 3.000 euro banatuko ditu saritan Txandak.

 **Oñabike**

oñabike.com

Otadi 25, Oñati · Tel.: 943 78 05 65

BIZIKLETAK · PATINETEAK · KIROL ARROPAK



Atal honetan, gutunek ezingo dute 1.800 baino karaktere gehiago izan. Aldizkariko erredakzioak eskubidea izango du gutunak laburtzeko. Gutunarekin batera igorlerraren izen abizenak eta harremanetarako telefonoa bidali behar dira. Gutunak, egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira.

**Bidaurreta Dorrea z/g**  
**20560 OÑATI**  
**Tel.: 943 78 20 72**  
**kontzejupetik@onati.eus**



Oñatiko Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia

## KONTZEJUPETIK

### Argitaratzailea:

Oñatiko Udala

### Zuzendaria:

Iñigo Arregi

### Publizitatea:

Aratz Losada

### Diseinua eta Maketazioa:

Aratz Losada

### Kolaboratzaileak:

Jerardo Elortza eta Euskaltegia

### Inprimategia:

Gertu

### Tirada:

5.500 ale

### Lege gordailua:

SS-357/91

### Posta-e:

kontzejupetik@onati.eus

### Publizitatea:

publi@onati.eus

Bidaurreta Dorrea, Olakua auzoa  
20560 Oñati (Gipuzkoa)  
Tel.: 943 78 20 72

## Oroimenaz kongresu bat

**Beñi Agirre**

2022ko martxoaren azken larunbatean, Amaiurko gertaerak aztertzeko kongresua antolatu zen Hernanin. Jardunaldiak oso formatu interesgarria izan zuen. Lehenengo hiru ponentziek gertaerak testuinguruan jarri eta gertatutakoa zientzia historikoaren kuspegitik aztertu zituzten. Ondoren, Amaiurrek gure herriaren oroimen historikoan duen garrantzia landu zen. Bai, orain 500 urte gertatutakoak Euskal Herriaren oroimenean duen eragina bizirik dirauela erakutsi zen. Azkenik, Amaiurrek gaur duen garrantzia eztabaidatu zen lau laguneko mahainguruan. Gainera, "habitat erakusketak", Amaiurren paisaia margo baten presentziak eta kantaldiak goiz atsegina pasatzen lagundu zuten.

Zergatik Amaiurriri buruzko jardunaldia Hernanin? Norbaitek zalantza baldin bazuen, argi geratu zen goiz osoan zehar nazio berberaz hitz egiten ari ginela; beraz, Hernanin Amaiurri buruz hitz egitea edo, Amaiurren, Donapaleun edo Tuteran Hernaniri buruz jardutean nazio euskalnafarrak aritzea baino gauza normalagorik ez dagoela esan daiteke. Normala ez ezik beharrezkoa ere badena.

Historiografia franko-espainiarren mito batzuk ere erori ziren bertan. Argi geratu baitzen, euskalnafarrek espainolekin zuten gerraren testuinguan gertatu zirela borrokak. Etxauzeko jauna euskalduna zen eta Jaime Belaz Medranokoa eta bere semea, beste 150 lagunekin batera, bizia emateko prest ziren espainiarrek ez izateko. Gaztelua errenditu zutenean, batzuk Iruñera eraman zituzten preso eta inbasoreen esku hil ziren, edo zituzten, aste pare bat geroago, inork argibide zentzuzkorik eman gabe.

Amaiurko gaztelua 1522ko uztailaren 19an errenditu zuten Gaztela-Espainiarren aurrean eta gutxira, irailaren 6an, Joan Sebastian Elkanoak bukatu zuen bere mundu bira Espainiaren zerbitzuan. Artean, Carlos V. Alemaniakoa eta I. Espainiakoak agintzen zuen, Hondarrabiako setioa eta menderatzea agindu zuen berberak. Nola liteke halako kontraesana? Zertan ari zen euskalnafar handiki jendea garai hartan?

Handiki batzuk, askok agian, Ameriketako urreaz eta mundu biran irekitako espezieen bidean aberastea lehenetsi zuten. Aberaste horrek, ordea, tokiko miseria eta kapitalaren metatze hasiera ekarri zuen, baita Inperioarekin lotura ere, baina ez euskalnafar lurraldearen askatasuna. Gureak ez ziren gerratan nahasteak, miseria, zatiketa eta "Nafarroa munduaren miresgarri" izateko aukeratik aldentzea ekarri zuen. Bi nazionalismo inperialen mende bizitzera kondenatu gintuzten.

Kongresuak, ordea, irauli bat eman zuen mahaingurukoei euskalnafar paradigmatz galdetu zitzaieanean. Zeren eta historia, kongresu honetako kasua ez bada ere, irabazleek kontatu ohi dute eta oraintsu arte, gutakoek kontatu dutenean ere, ofizialek gutaz ari ziren zatitxoak lotuz osatua izan da. Paradigma berri batetik ekin behar diogu gure historiaren narrazioari.

Orain baino lehen, foralitatean eta eskubide historikoen aldarrian saiatu ziren euskalnafarrak bi karlistaldietan; horiek ukatu gabe, munduan sortzen ari zen naziotasunaren jorrari lotu zitzaien XIX. mendean "Euskal Herria da euskaldunen aberri bakarra" aldarrikatzen hasi zirenean. Horiek, ordea, muin politikoa uzten zuten alde batera; hau da, Nafarroak batu gintuela euskaldunok erakundetze politiko bakar batean. Eta hori kontuan hartu gabe, nekez sor daiteke zentsu zuzena garatuko duen etorkizuneko alternatibarik.

Porrot epiko bat gogoratzen dugu amaiurren, munduko beste hainbat herrik egiten duten moduan, katalanek Diadarekin edo juduek Holokaustoarekin, adibidez. Ezin dugu ahanztura hartu bidelagun, nondik gatozen jakin gabe nor garen definizio zuzena ematea ezinezkoa da eta horiek gabe nekez asmatu daiteke etorkizuneko bideorria, ahanzturak, ezjakintasan bezala, noraeza dakar. Ondorioa argia izan zen: Euskalnafarren herriak behar duena da, independentzia berri ere.




Zubillaga auzoa 12 • Industrialdea • OÑATI (Gipuzkoa)  
Tel.: 943 78 11 15 • [www.batuak.com](http://www.batuak.com)





## Munduko onenen artean, beste behin

 Nazioarteko Kirol Pentsaren Elkar-teak, munduko ekin-tzako kirol argazki onenaren finalean sartu du Félix Sánchezen Tokioko argazki ikusgarri hau. Ekainaren 12an jasoko du epaimahaiaren azken erabakia Qatarren. Gogoratu beharra dago, aurrez, World Athletics saria bi aldiz irabazi zuela Sánchezek (2018 eta 2019an).



FÉLIX SÁNCHEZ

## OHAR ETA DEIALDIAK

### • 1972xan JAIXOTAKUEN KINTTADIA

Urtiak aurrera doiaz eta 1972xan jaixotakuok aurten 50 urte beteko dittugu. Urte borobil bezain esanguratsua danez, elkarrekin OSPATU daigun. Mende Erdiz egindako hainbat pasarte gogoratu, aspaldiko lagunekin elkartu, gure artian ez dauzenak oroitu, gaztetako erritmora dantzatu... edo ez, eta beste makiña bat kontu elkarbanatu... ANIMATU eta APUNTAU 2022ko irailaren 10ian ospatuko dogun 1972kuen KINTTADARA. Zenbat eta gehixau apuntau, giro hobia.

EGITARAUA: Autobusez (11.00etan MUn): Oñati-Kostaldia-Oñati (21:00ttarako bueltan).

- Jantokia: Zarautzen (Coktail + bazkaria + Musika barne)
- Zenbatekua : 100€
- Izen ematia: Laboral Kutxa (ES66 3035 0170 51 1701044834)

- Kontzeptua: 1972 Kinttadia + norberaren izena eta abizena.
- Apuntaitteko azken eguna: Ekainak 30.

### • 1977ko KINTTADIA

Aurten 45 urte egitten dittugula eta pasau dogun bi urte gogor honein ondoren kintto bazkari bat egittia ondo etorriko xakula uste dogu. Barriketa apur bat egin, barre batzuk bota, dantzaldi batzuekin gorputza mobittia ondo egon leke... ez dozu uste?

Kinttadia **uztailaren 9xan** izango da. Poteorako ordua, 12:30ttan Bogan. Bazkaixa Etxeaundin (14:30). Aurrez jarri biharreko fidantza: 55€. Kontu zenbakixa: ES19 3035 0005 32 0050084791 (Norberan izen-abizenak ipini. Izena emuteko azken eguna: ekainak 24. Musikia eta giro ona asegurauta.



**Gualbi**  
asesores

*Bezeroen beharrei erantzuteko prest!*

Kontabilitate administratiboa • Fiskalitatea  
Lan-arloa • Kontu-ikuskaritza  
Merkataritza • Abokatuak

Euskadi Etorbidea 6

T.: 943 781 648

onati@gualbiasesores.com

[www.gualbiasesores.com](http://www.gualbiasesores.com)



*Gure ekintzen berri emango duen atala...*

## IKASTURTE AMAIERA ETA UDALEKUAK

Konturatu orduko, ikasturtea amaitu zaigu. Ekainean gaude dagoeneko eta maiatzeko eguraldi bero horiekin batera uda giroan murgiltzen hasiak gara. Txaloka Udal Ludotekan ikasturtea ere amaitzen gabiltza eta hilaren 17an atea itxiko ditugu. Irailean berriz bueltan etorriko gara proiektu eta amets berriekin. Izango duzue gure berri. Hala ere ikasturtea ondo amaitzeko gure ludotekako familiekin Pottoka Lekura irteera berezia egingo dugu hilaren 16an, eta 17an merendola batekin itxiko ditugu atea.

Ekainaren 27tik uztailaren 22ra berriz Udalekuak izango ditugu aurten ere. Ez ohiko bi urteren ostean herria koloretako haur talde handiz beteko dugu berriz ere. Oñati herria hartuko dute hurrek eta parke, karrika zein natur guneetan barrena ibiliko gara lau aste luzez. Arte eta udaleku irekiak batuta 600 hurretik gora osatutako udalekutzarrak izango dira, eta handitasunetik txikitasunera eramaten saiatuko gara, hau da talde bakoitzak merezi duen mimo eta goxotasuna eskaintzen. Udaldi gozagarri eta polit bat osatuko dugu guztion artean.

Udaleku irekietan pandemia garaietatik ikasitakoak ere aprobetxatuko ditugu eta bi gune nagusi mantenduko dira; alde batetik Gaztelekua plaza-gunean haur hezkuntzakoentzako, eta bestetik Eltzia goiko gunea lehen hezkuntzakoentzako. Guzti hau kudeatzeko helburuarekin 5 koordinatzaile buru belarri lanean ari gara urte hasieratik, eta laster beste 74 begiraleekin osatuko dugu lantaldea Udalekuei hasiera emateko, irrikan gaude!

## GAZTE ELKARTE ETA SORMEN DIRULAGUNTZAK

2022. urtean Haur eta Gazteria Departamenduak kudeatzen dituen programaren kontura emango diren diru-laguntzen deialdia 2022ko maiatzaren 19an Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu da, diru-laguntza hauek jarraian zerrendatzen diren ataletan oinarrituko dira:

- Urteko programaketa eta Elkartearen sustapena.
- Kultur sormena eta hedapena (diskak, audio-bisualak, ...).
- Ez-ohiko jarduerak.

Gauzak horrela uztailaren 2rarte egongo da diru-laguntza hauek eskatzeko epea. Informazio gehiago Gaztelekuan, Oñatiko Udalean edo [www.onati.eus](http://www.onati.eus)

## GAZTE EMANTZIPAZIORAKO DIRULAGUNTZAK

Oñatiko Udaleko Haur eta Gazteria Sailak alokairuko etxebizitza eskuratzea sustatzea helburu duten diru-laguntzak martxan jarri ditu aurten ere. Diru-laguntza hauen helburua Oñatiko udalerrian ohiko egoitza izateko alokairu erregimenean etxebizitza bat duten edo indarrean dagoen urtearen urriaren 17a baino lehen alokairu erregimenean kontratu bat sinatzeko konpromisoa hartuko duten 18 eta 35 urte bitarteko herritarrei (biak barne) etxebizitzaren alokairuaren zati bat ordaintzea da. Esan bezala, dagoneko eskatu daitezke, urriaren 17rarte.

Informazio gehiago Gaztelekuan, Oñatiko Udalean edo [www.onati.eus](http://www.onati.eus)



### BERTSO PAPER LEHIAKETA

Igandean banatu ziren Gaztelekuan, XIII. Bertso-Paper lehiaketako sariak. Argazkian, aurtengo sarituak, bertsolari eta gainerako ordezkariak. Zorionak!

**AGENDA** 2022.06.16 Pottokalekura irteera ludotekako erabiltzaileekin. | 2022.06.17 Ludotekako itxiera eta merendola. | 2022.06.23 Holi Fest, Kuboan. | 2022.06.28 DBH4ko prozesukoekin bidaiaroses-era.



# C1 TITULUA

## eskuratzeko ikastaroa



Udal euskaltegiko irakasle taldea

### Zertarako balio du C1 tituluak?

Gaur egunean Euskal Herrian administrazioko lanpostu bat lortzeko maila bateko edo besteko euskara-gaitasuna egiaztatzea eskatzen da, besteak beste, irakaskuntzan, Osakidetzan, Ertzantzan. Administrazioetik kanpoko lanpostu askotan ere, derrigorrezkoa ez bada ere, eskatu edo balioesten da. Beraz, C1 maila tituluak balio funtzional handia du gure gizartean lanpostu bat eskuratzeari begira.

### Zein deialditarako prestatuko da?

Eusko Jaurlaritzako HABE erakundeak ikasturtean zehar euskaltegi batean ikasten duten ikasleentzat bi deialdi prestatzen ditu — deialdi itxiak deitzen zaienak —, bata maiatzean eta bestea irailean. Ikastaro honetan HABEko iraileko deialdira joateko prestatuko da ikaslea.

**EUSKARAZ**  
**ZABALDU AUKERAK** 2022  
DESCUBRE TODO LO QUE TE OFRECE EL EUSKARA

UDAL EUSKALTEGIAK HABE LDAKO EUSKARA IKASTAROAK CURSOS DE VERANO DE EUSKARA

## UDAL EUSKALTEGIAN C1 MAILA PRESTATZEKO IKASTAROA

- **DATA:** ekainaren 27tik uztailaren 22ra
- **ORDUTEGIA:** 8:30-13:00
- **ORDU KOPURUA:** 80
- **PREZIOA:** 118,10€

*Langabezian egon eta subsidiorik jasotzen ez dutenek, doan; jasotzen dutenek, berriz, matrikula hobaritua izango dute.*

- **MATRIKULA EPEA:** ekainaren 1etik 20ra, euskaltegiko idazkaritzan. Gehienez ere, 10 laguneko taldea osatuko da, eta izen-ematearen hurrenkeran onartuko dira.
- **OHARRA:** Ikastaro honen helburua HABEko 2. deialdiko azterketa itxira joateko prestatzea da.



» **Bi denboralditan Gipuzkoako 3. mailatik Igora igotzea lortu du Aloña Mendik**

eta pandemiak eragindako iazko etenaren ostean, aurten 1go mailarako jauzia egin du, joko bizia, azkarra eta ikusgarria eginez. "Gaztea da oraindik taldea, eta, beharbada taktikoki ez dago oso landuta, baina saiatu gara fisikoarekin konpentsatzen. Prestaketa fisiko ona egin dugu, jokoan intentsitate handia jartzeko, eta hori izan da gakoetako bat. Hori eta taldean izan dugun giro bikaina", azaldu du Iglesiasek.

#### BETI GORA BEGIRA

Ondo merezitako atsedena hartuko dute orain, baina hurrengo denboraldirako asmo edo helburuez ere galdetu diogu Iglesiari. "Denek esaten dute bigarren mailatik lehenengora jauzi handia dagoela kalitatean, eta geuk ikusitako partiduetan ere antzeman dugu koska bat dagoela. Baina gure helburua gora begira egotea izango da eta, ahal bada, igoerako play off-ean sartzea. Agian ez dugu lehen urtean lortuko, baina gure helburua izan behar da igotzea".

Badirudi aurtengo bloke osoa mantenduko dela hurrengo denboraldian, eta futboletik datozen bi jokalarri batuko zaizkiela. ■

# Lehen mailara

Liga txapelketako finala galdu arren, hurrengo denboraldian Gipuzkoako lehen mailan ariko da Ingou-Coinbroker Aloña Mendi areto futbol taldea

Arauzko denbora 3nako berdinketarekin amaitu ostean, penaltietan (4-3) galdu zuen Aloña Mendik maiatzaren 28an jokaturako Gipuzkoako 2. mailako liga txapelketako finala, Zaldibiaren aurka.

Dena den, helburu nagusia lortuta zeukan Aloña Mendik astebete lehenago, igoera play off-eko finalerdietan Tolosa mendean hartuta, txapelketako lehen bi sailkatuak igoko baitira lehen mailara.

Tolosaren aurkako finalerdia oso lehiatua izan zen. Joanekoan 2-2 berdindu zuten Oñatin, baina bueltako partiduan 0-1 nagusitu zen Aloña, partidu borrokatu baten ostean, lehen mailarako txartela poltsikoratuz.

Denboraldia borobiltzeko, Zaldibiaren aurkako finala ere irabazi nahi zuten, baina pozik daude, hala ere, Aloña Mendi taldekoak, Iñaki Iglesiasek entrenatzaileak adie-

razi digunez. "Finalerdietako kanporaketan tentsio handia izan genuen, denboraldi hasieran ipinitako helburua —mailaz igotzea— eskura genuelako, eta lasaitu ederra hartu genuen hori lortuta. Egia da, finala ere irabazi nahi genuela, denboraldiari urrezko amaiera emateko, eta ez zen posible izan, baina oso pozik gaude hala ere".

2019/20 denboraldian 3. mailatik 2.era igo zen Aloña,



## KOPA TXAPELDUNAK

Gari Nuñez-ek zuzentzen duen Erregional mailako futbol taldeak kopa txapelketa irabazi du. Joan den larunbatean (maiatzak 28) jokatu zen finala Zumarragako Argixao futbol zelaian, eta 1-0 nagusitu zen Aloña Mendi Trintxerperen aurka. Lehen zatian pasaitarrak nagusi izan ziren, baina ez zuten golik sartzen asmatu, eta partidua hondarrean Ander Biainek sartutako gola eman zion garaipena Aloñari. Jarraian lortzen duen bigarren kopa da, pandemia aurreko azken kopa ere berak irabazi baitzuen.





## Ugarte-Ramostarrak goi mailan, beste behin

Mikel, Espainiako Triatloi Txapelketan bigarren sailkatu da, eta Marisol Europako azpitzapelduna izan da, maratoni erdian

Marisol Ramos eta Mikel Ugarte ama-emeak albiste izan ditugu berriz ere, eta ez nolana hikoia. Marisoli dagokionez, Europa mailako lasterketa batean nabarmendu da orainoan, bigarren sailkatu baitzen maiatzaren 15ean Grosseton (Italia) jokaturako Europako Txapelketako maratoni erdian, W60 kategorian, 1:36:23 denborarekin. Gogoratu, aurten bertan Espainia eta Europako kros txapelketak ere irabazi dituela Aloña Mendiko korrikalari beterranoak, sasoi batean dagoela eta distantzia nahiz modalitate ezberdinetan bikain moldatzen dela erakutsiz. Eta, adi, izan ere, ekaina bukaeran Finlandian jokaturako munduko txapelketan parte hartzeko asmoa baitu, lesioek errespetatzen badute, behintzat.

### IRONMAN DISTANTZIAN AZPITXAPELDUN

Mikelek, semeak, lortutakoa ere txapela kentzeko modukoa da, bigarren sailkatu baita Ironman distantziako Espainiako Triatloi Txapelketan. Platya d'Aro-n (Girona) jokatu zen lasterketa, maiatzaren 8an, eta 8:35:22-ean osatu zuen ibilbidea ANb Triathlon Team taldean ari den triatleta oñatiarrak. Lehen partziala, 3,8km igerian, 45:06 osatu zuen Ugartek, bigarrena, 180km bizikletan, 4:52:04-ean, eta azkena, maratonia, 2:53:26-ean, eta iazko Espainiako txapeldun Victor Arroyo bakarrik izan zen azkarragoa (8:35:22).

Poztekoa da, familia berean ama-emeak maila horretan ikustea. Ugarte-Ramostarren etxean oso presente egon da beti atletismoa, —aita eta alaba ere ibili izan dira hainbat urtetan—, eta bistan da etxean transmititu duten kirolarekiko zaletasunak bere fruituak eman dituela.



## Ekaineko mendi irteera, Aralarra

**MENDI IRTEERA** Aloña Mendik ekainerako antolatutako duen mendi irteera Aralarra izango da. Larraitzen abiatu eta ibilbide zirkularra egingo dute Ausa Gaztelu (901m) eta Txindoki (1356m) tontorrek konbinatuz. Itzuleran Muitzetik egingo dute. Guztira 14 km.-ko ibilbidea, 5-6 ordutan egitekoa. Ez du zailtasunik. Irteera **ekainaren 12an** izango da. (Astebete aurreratu dute irteera, Korpus eguna libratzeko). Izena emateko azken eguna, ekainak 9, Aloña tabernan. Prezioa: 10€. Federatuta egon behar da.



## Kadete mailako proba, Olakuan

**TXIRRINDULARITZA** Kadete mailako txirrindularientzako 35. Olakua proba jokaturako da ekainaren 5ean, arratsaldeko 16:30etan. Tartean izango dira Aloña Mendi-Ulma taldeko txirrindulariak.

► AIMAR MADINA, LIDERTZAN. Aloña Mendi-Ulma taldeko jubenil mailako txirrindulariak aurten ez du oraindik garaipenik lortu, baina bai postu onak, eta horri esker Euskal Herriko Txapelketako lidertzan jarri da.

## Torreazuko lasterketa, uztailearen 3an

**ATLETISMOA** Pandemiak eragindako bi urteko etenaren ostean, uztailearen 3an jokaturako da Torreazuko lasterketa (7,5km.), Abixaran taldeak antolatuta. Aurten online bakarrik egin daiteke izen-ematea (8€), [www.herrikrosa.eus](http://www.herrikrosa.eus) atarian. Ohi bezala, sari ugari zozkatuko dituzte partaide guztien artean, eta gogoratu, talde bezala parte hartzen dutenenentzat sari bereziak egongo direla.

## Joseba Azkarate, Reinosako duatloian

**DUATLOIA** Ate berri bat zabaldu du Joseba Azkarate oñatiarrak. Reinosan (Cantabria) izan da orainoan. Bertako I. Paraduatloia jokatu zen maiatzaren 8an eta han izan ziren Atxintxika taldeko hiru kide. Gogorra izan zen lasterketa, beroagatik eta adokinengatik, baina Josebak erakutsitakoak beste bultzada bat eman dio kirol egokituari.

## Kadete neskek, Gipuzkoako azpitzapeldun

**SASKIBALOA** Aloñaiko partaidetza mailako kadete nesken taldeak errendimendu mailara igotzea lortu du. Liga bikaina osatu ostean, finala jokatzera iritsi zen eta Ordiziaren aurkakoan, 44-40 galdu zuten txantxikuarrek. Zorionak!



# Aita Madinaren musikari eskainitako urtea

Musikari oñatiarraren heriotzaren 50. urteurrena betetzen da aurten. Hori dela eta, Madinaren omenezko hainbat kontzertu antolatu ditu Artixa taldeak, Udalaren laguntzarekin



Aitor Olea (organista), Jose Antonio Azpiazu, Joxe Fernandez (Artixa), Xabier Ugarte eta Iñaki Olalde (Udala), Aita Madinaren omenezko kontzertu sorta aurkezten

Aurten, ekainaren 30ean, 50 urte beteko dira Aita Madina musikari oñatiarra hil zela. Hori dela eta, Oñatiko Artixa kultur elkarteak haren omenezko hainbat ekitaldi antolatu ditu, Zubillagan sortutako musikari handia gogoratu eta berak konposatutako musikari bizia ematen jarraitzeko.

Oñatiko Udalak ere bat egin du Artixaren ekimenarekin eta, hala, udazkenean antolatu ohi duen Musikegunak jardunaldiak ere Madinari eskaintzea erabaki du, ekainean hasi eta azarora arte luzatuko den musika ziklo berezia osatuz.

Lehenengo kontzertua **ekainaren 12an** izango da, Aitor Olea organista eta Amaia Azpiazu sopranoaren eskutik (ikus ondoko orrian). Ondoren, **uztailaren 3an**, Oñati Abesbatzak eta parrokiako emakumeen abesbatzak Madinaren omenez Zubillagan ospatuko den mezan (11:00) abestuko dute.

Urrian eta azaroan Madinari buruzko beste lau kontzertu eta mahai-inguru bat ere egongo dira. ■

## AITA MADINA Oñatik eman duen musikaririk handiena



Francisco Madina Igarzabal Zubillagako Txipitxaile baserrian jaio zen 1907ko urtarrilaren 29an. Gaztetandik erakutsi zuen musikazaletasuna. Filosofia eta Teologia ikasketekin batera, musika eta konposizio arlokoak ere egin zituen, Oñatin lehenengo eta Burgosen ondoren.

Kanonigo Laterandarren lagundian sartu eta aurreneko meza Oñatin eman zuen 1929an. Handik bi urtera, 1931n, Argentinara destinatu zuten eta bertan eman zituen ia hogeita bost urte.

Buenos Airesko *Lagun Onak* abesbatzaren, *Saski-Naski* euskal gazte taldearen, eta Saltako koru polifonikoaren

sortzaile eta eragile nagusietako bat izan zen.

1947an Nicanor Zabaleta harpa jotzaile handia ezagutu zuen, eta harentzat konposatu zituen, besteak beste, *Sonata Vasca* eta *Suite* harparako doinuak. Zabaletaren interpretazioei esker, Madinaren partiturek Ipar Amerikako editore inportanteenen arreta bereganatu zuten.

1950ean, oporretan Oñatin zegoela, konposatu zuen, Udalak eskatuta, *Oñati* rapsodia, eta Madinak berak zuzendu zuen estreinaldia Unibertsitateko patioan.

1955ean, Arantzazuko basilika berriaren inaugurazioaren harira antolatutako lehiaketara *Arantzazu* poema sinfoniko-korala aurkeztu zuen, epaimahaiaren ohorezko aipamena jasoz.

1957an Oñatira itzuli zen eta herriak

### ARANBURU ALTZARIAK

Kale Zaharra, 21  
Kale Barria, 11  
Lizaur A., 7  
OÑATI  
Tfnoak: 78 11 60 / 78 05 73

ESTILO  
GUZTIETAKO  
ALTZARIAK

LANPARAK,  
TAPIZAK,  
KORTINAK



### MODA BEREZIA

Kale Barria, 12  
Tel. Faxes: 943 71 62 40



# Aitor Olea eta Amaia Azpiazen kontzertua Aita Madinaren omenezko zikloa hasteko

**Ekainaren 12an izango da kontzertua  
Parrokian (19:00)**



Amaia Azpiazu, soprano oñatiarrak, eta Aitor Olea, organista durangarrak, ekainaren 12an eskainiko duten kontzertuak emango dio hasiera Aita Madinaren omenez antolatu den kontzertu zikloari.

Madinak ahots eta organorako konposatutako 11 abesti estreinakoz entzuteko aukera izango dugu. "Argentinan eta Estatu Batuetan bizi izan zen garaian idatzitako eliz-kantak dira. Xabier Ugartek Madinaren artxibotik erreskatatu ditu eta, guk dakigula, Europan sekula abestu gabeak dira", azaldu digu Amaia Azpiazuk. "Madinak hain bereak dituen melodia eta kromatismoz osatutako abesti motzak dira, eta organorako soilik konposatu zituen beste 7 piezarekin tartekatuko ditugu kontzertua osatzeko".

2016an Aita Madinaren doinuz osatutako CDa (Aita Madina: Canciones / Eliz Kantak) grabatu zuten Oleak eta Azpiazuk, orduan ere Xabier Ugartek eskuratutako partiturak musikatuz. "Konposatzaile oparoa izan zen Madina, eta haren musikari bizia ematea da helburua. Ildo horretan, txalotzekoa da Madinaren artxiboa eguneratzeko Ugartek eta Artixa taldeko kideek egindako lana", dio Azpiazuk.

Kontzertua Mikel Goiaingeruaren parrokian izango da. Sarrerak (5€) Txokolateixan eskura daitezke.

omenaldi beroa eskaini zion. Bilboko Orkestra Sinfonikoak *Arantzazu* obra estreinatu zuen San Migel parrokian.

1958 eta 1959an Madinaren omenezko kontzertu handiak antolatu ziren Euskal Herrian, besteak beste, Donostiako Victoria Eugenia eta Bilboko Arriagan.

1958tik aurrera New Yorken bizi izan zen. Besteak beste, *Amerikako Ahotsa* irratian aritzen zen, musika-kritikari lanetan, eta bertan ezagutu zuen mundu mailan ezaguna zen *Los Romero* kitarrak-jole laukotea. Hauentzat konposatutako *Concierto vasco para cuatro guitarras y orquesta* San Francisco estreinatu zen 1970ean, arrakasta handiz.

Los Romero eta Nicanor Zabaleta izan ziren, dudarik gabe, Madinaren musikaren enbaxadorerik onenak mundu



Goiko argazkian Aita Madina Los Romero kitarrak-jole ospetsuekin agiri da. Ezkerrean, Nicanor Zabaleta harpa-jotzailearen ondoan

zabalean.

Orkestazio sofistikatuz gain, abesbatzendako doinu herrikoiak idaztea ere gustuko zuen Madinak, eta horietako asko Oñatiko Iriintzi otxotearentzat konposatu zituen.

Sormen handiko gizona izan zen. Bere apaiz lanari sekula uko egin barik, ehunka obra konposatu zituen orkestra, kitarra, harpa, piano, organo nahiz abesbatzendako. Ezagunen artean *Oñati* eta *Arantzazu* poema sinfonikoak, edota *Aita Gurea*, *Agur Maria* eta *Lauda Sion* bezalako kanta ederrak.

1966an, Oñatin zegoela, buruko odol isuria izan zuen. Indarberitu ostean AE-Betara itzuli zen, baina 1971n beste odol isuri bat izan zuen eta, jaiotetxera itzulita, 1972ko ekainaren 30ean zendu zen. ■

 **ZURICH**  
M<sup>a</sup> del Mar Urrutia Negueruela  
Motxon Kalea 5 behea  
Tel./Faxa: 943 78 30 09 • Mugikorra: 620 77 66 20

**HARALD LINDER**  
ETXEETAN ERA GUZTIETAKO KONPONKETAK  
PERSIANAK, LEHIOAK, LUR FLOTANTEAK, ARGIAK, PINTURA LANAK...  
  
DISEINATZAILE ETA MONTATZAILEA  
SUKALDEAK, KOMUNAK eta ASKOZ GEHIAGO  
OLAKUA 12 B 4 ezk. - 20560 ONATI - GIPUZKOA  
695 78 91 04 - 943 04 47 77

## Beatles, Phill Collins edo Queen bezalako taldeen melodiak, musika bandaren ikasturteko azken saioan



**Ekainaren 5ean,** igandea, izango da kontzertua, Zubikoa pilotalekuan (13:00). Sarrerak (dohainik) Txokolateixan eskura daitezke

Pop, jazz, rock edo blues doinuak entzun ahal izango ditugu Oñatiko musika bandaren 2021/2022 ikasturteko 'Gutiziak' saileko azken kontzertuan. 'Tributoa' izenburupean, *Nino Bravo*, *Beatles*, *Phil Collins*, *Sinatra*, *Queen* eta *The Blues Brothers* talde eta musikari ezagunen doinuak bertsionatuko dituzte. Erraz entzuteko musika; gozatzeko, kantatzeko eta dantzatzeko gogoia emango duten doinuak izango dira, azken 30 urteetako musikaren laburpen txiki bat, azken batean.

### MUSIKA BANDAREN HURRENGO KONTZERTUAK

Aitor Biain-Bidartek zuzentzen duen musika bandaren hurrengo emanaldia Korpus egunean (ekainak 19) izango da, Lazarraga lorategian, 13:15etan (eguraldia txarra bada, kiroldegian).

Bestalde, 'MUSIKAAUZOETAN' ekimenaren baitan, Zubillaga auzoko jaietan ere kontzertua emango du musika bandak, eta baita Atzeko Kaleko jaietan ere.

### 'GANBARA FAKTORIA'ren EMANALDIAK

Ganbara Faktoria osatzen duten abesbatzek (Ganbara Kantu Eskola — Tailerrak, Ganbara Txikitxo eta Ganbara Txiki— Hots Abesbatza eta Ganbara Abesbatza) Bazkide Kontzertua emango du **ekainaren 4an**, Santa Ana aretoan (19:00), eta Kantu Eskolako ikasleek ikasturte amaierako emanaldia **ekainaren 10ean**, Santa Anan, 19:30.

## TRIKITIKA EGUNA ospatuko da lehen aldiz ekainaren 25ean

TRIKITIKA eguna (TRIKITIXA eguna + HIKA eguna) ospatuko da lehen aldiz ekainaren 25ean, **Lizargarate** trikitizale elkartearen eta **Ingo Xonau!** taldearen ekimenez. Egun osoko festa izango da, San Juan egunaren biharamunean. Eguerdian Oñatiko trikitilariak girotutako **triki-hika-poteoa** egongo da, gero **hika-bertso-bazkaria**, arratsaldean **Eingo** txarangak alaitutako **triki-hika-poteoa** eta gauean erromeria, **Bidean** taldearekin. Txosna ere ipiniko dute Lizargarate elkarteok, Irunberri plazan.



Hika-bertso-bazkarian hiru bertsolarik hartuko dute parte: **Oihana Iguaran**, **Amets Arzallus** eta **Eli Pagola** ariko dira bertsotan. Txartelak Txokolateixan ipiniko dituzte salgai.

## DAP antzerki plataformaren kurtso amaierako emanaldiak

Debagoieneko Antzerki Plataformak iasturte amaierako saioak taularatuko ditu datozen egunetan.

### • EKAINAK 6

Oñatiko helduen antzerki taldeak 'Ez, ez naiz akordatzen' antzezlan taularatuko du Santa Ana antzokian (20:30).

### • EKAINAK 8

Oñatiko Haurren antzerki taldearen emanaldia, Santa Ana antzokian (18:15).

### HURRENGO KURTSORAKO IKASTAROAK

DAP antzerki plataformak, Oñatiko Irazan Antzerki Gunearekin elkarlanean, honako ikastaroak antolatuko ditu 2022/2023 ikasturterako (dantzerkiplat@gmail.com):

- ASTELEHENETAN

**Haurrak 1** (17:45 - 19:00) / **Helduak** (19:15 - 20:45)

- ASTEAZKENETAN

**Haurrak 2** (17:45 - 19:00) / **Gazteak** (19:15 - 20:30)

**JUANJE MARGOAK**  
627 818 247

**ARKITEKTURA**

Baserrien eraberritzeak • Isolatzailea fatxadetan • Igogailuak

tel: 677 31 20 57 \* amaiigartua@gmail.com



# Gure beharra baduzu, ondo-ondoan gaituzu.

Hain ondo zaindu nahi  
zaituztegu,  
**Arrasate/  
Mondragonen**  
bertan ere artuko zaitu  
Zuatzu Klinikako  
espezialista-taldeak,  
hogei urtetik gorako  
esperientzia duenak.

Ginekologia eta obstetrizia.  
Jaio aurreko diagnostikoa.  
Bularretako patologia.  
Laguntza bidezko ugalketa.



Nafarroa Etorbidea, 4 (behea) . 20500 Arrasate/Mondragon  
943 792 018 . [www.clinicazuatzu.com](http://www.clinicazuatzu.com)

# AGENDA

Kultur ekitaldiei buruzko informazioa eta sarrera salmenta   
[www.onati.eus](http://www.onati.eus) webgunean (QR kodean) edo Txokolateixan

## ERAKUSKETAK

**EKAINAK 5 arte / 18:00-20:00****PINTURA ERAKUSKETA**Udalak antolatutako 'Marrazketa eta Pintura artistikoa' tailerreko ikasleen lanak ikusgai. [Kultur etxea](#).

## KONTZERTUAK

**EKAINAK 4 / 19:00****'EMAKUMEEK IDATZIA'**Ganbara Faktoriako talde guztien 'Bazkide kontzertua'. [Santa Ana](#)**EKAINAK 5 / 13:00****MUSIKA BANDA**'Tributoa' izenburupean, ikasturteko azken kontzertua. [Zubikoa kiroldegian](#)**EKAINAK 10 / 19:30****GANBARA KANTU ESKOLA**Kantu eskolako ikasleen ikasturte amaierako kontzertua. [Santa Ana](#)**EKAINAK 12 / 19:00****AMAIA AZPIAZU ETA AITOR OLEA**Aita Madinaren omenezko kontzertua. [San Migel parrokia](#)

## HITZALDI-SOLASALDIAK

**EKAINAK 13 / 17:30****KOFRADIA - KORPUS EGUNA**Jesus Irizar 'Txutxin' eta Iosu Amondarainen hitzaldia. [Pake Lekun](#).**EKAINAK 21 / 19:00****GREZIAKO ERREALTATE MIGRATZAILEAK**EREI elkartearen eskutik. [Kultur etxea](#).

## LIBURU AURKEZPENA

**EKAINAK 8 / 19:00****'MIGRAR Y RESISTIR'**Mónica Parraren liburuaren aurkezpena online, autorearekin. [Kultur etxea](#).

## ESPELEOTXIKI irteera bereziak

Kobazuloen nazioarteko egunaren harira Espeleotxiki bisita bereziak egingo dira Arrikruzteko koban, **ekainaren 12an** (gaztelera) eta **ekainaren 18an** (euskaraz), 16:00etan. Bi ordu eta erdi inguruko irteera hauetan Arrikruzteko hainbat galeria ezagutzeko aukera egongo da. Familia giroan egiteko irteerak dira, 6 urtetik gorako haurrentzat. Erreserbak eta informazioa: 943082000 / [arrikruz@onati.eus](mailto:arrikruz@onati.eus).

## ANTZERKIA

**EKAINAK 6 / 20:30****'EZ, EZ NAIZ AKORDATZEN'**DAP plataformaren baitan sortutako helduen taldearen antzezlan. [Santa Ana](#).**EKAINAK 8 / 18:15****HAURREN TALDEA**DAP plataformaren baitan sortutako haurren taldearen emanaldia. [Santa Ana](#).**EKAINAK 18 / 17:30****BUTERFLY EFFECT (Gizakiaren hegaldia)**Haur eta gaztetxoentzako antzezlan, Astrolabium taldearen eskutik. [Etxaluzen](#).**EKAINAK 24 / 17:30****'DE VECINOS COMO ESTOS LIBRANOS SEÑOR'**Pake Lekuko Ikusi-Mausi antzerki taldearen emanaldia. [Santa Ana](#).

## IRTEERAK

**EKAINAK 19 / 10:45****OÑATI EZAGUTZEN - APOSTOLUAK**

Korpus prozesioan irtengo diren apostoluen prestaketa ikusteko aukera, Pake Lekuk antolatuta.

**EKAINAK 21 / 17:00 - 21:30****URAK TA HOLA**Uraren erabilera ezberdinak, oraingoak eta lehengoak: errotak, Tokilloko zentrala, neberua, ur-zulo eta lehenego iturrietara ura eramateko azpiegituren aztarnak. STH (Sasak Ta Hola) taldeak antolatuta. [San Martingo aparkalekuan](#).**EKAINAK 30 / 11:00****OÑATI EZAGUTZEN - UNIBERTSITATEA**

Sancti Spiritus unibertsitatea bisita gidatua, Pake Lekuk antolatuta.

## BERTSO SAIOA

**EKAINAK 25 /****HIKA-BERTSO-BAZKARIA**

Trikitika egunaren baitan. Bertsolariak: Oihana Iguaran, Amets Arzallus eta Eli Pagola. Sarrerak Txokolateixan.

## EKITALDI BEREZIAK

**EKAINAK 17 / 17:30****MEMORIA AKTIBATZEKO TAILERRA Lagun Lekun****EKAINAK 21 / 17:30****BINGOA Lagun Lekun****EKAINAK 22 / 17:00****TXOKOLATADIA Pake Lekun****EKAINAK 22 / 17:30****SAN JUAN LORE-SENDORREN TAILERRA Lagun Lekun****EKAINAK 23 / 17:00****BINGO BEREZIA Pake Lekun****EKAINAK 25 /****TRIKITIKA EGUNA: Trikitixa + Hika Eguna****EKAINAK 26 / 12:00****JUBILATUEN EGUNA Parrokiko klaustroan**

## AUZOETAKO JAIK

**EKAINAK 3-5 OLAKUAKO JAIXAK****EKAINAK 11-12 ARAOZKO JAIXAK****UZTAILAK 1-3 ZUBILLAGAKO JAIXAK**


**ARRIZABALAGA**  
Aroztegia

**PAKITA**  
Altzariak

Berezao Ind. 10  
Tel. 943 78 14 64

Sta. Marina, 6  
Tel. 943 78 02 21

SUKALDE ALTZARIAK • ALTZARI RUSTIKOAK • NEURRIRA ENPOTRATURIKO ALTZARIAK



**IRAZOLA**  
Okindegia

Ostiral, asteburu  
eta jai egunetan  
baserniko agia,  
egurrezko labean egina

Larraña auzoa, 44 • Tel.: 943 78 25 97 • Mug.: 688 630 754



## POESIA ERREZITALDIA

Ekainak 10, Ostirala,  
ZINE ARETOAN, 19:00

Itziar Ugarte  
idazle oña-  
tiarrak  
Mikele  
Landare-  
kin batera  
sortu duen 'Gu



**gabe ere. Biharamunean'** emanaldiaren estreinaldia izango dugu kultur etxean. Halaxe aurkeztu du emanaldia Ugartek berak. "Gu gabe ere liburuaren eszena gaineko hedatze bat da. Poemei ikus-entzuneakoak gehitu dizkiegu, hegal modura orain, aingura lez gero. Denbora eta espazio baten zalantzetan, izpietan eta, batik bat, inguruarekiko dialektikan sakontzen segitzeko modu bat izan nahi du".

## ARTXIBOEN EGUNA

Ekainaren 9an, Artxi-  
boen Nazioarteko Eguna  
dela eta, **bisita gidatuak**  
egingo dira Oñatiko Artxibo  
Historiko Probintzian,  
goizez (10:00 eta 12:00)  
eta arratsaldez (16:00 eta  
18:00). Plazak mugatuak  
dira bisitako eta, beraz, au-  
rrez izena eman behar da:  
943415060 / [ahpg-gpah@  
gipuzkoa.eus](mailto:ahpg-gpah@gipuzkoa.eus). Herritar guz-  
tiak daude gonbidatuta.



### Hileko gomendioa

Garai guztietako film erru-  
siar onenatariko bat dela  
esan dezakegu. Errusiare-  
kiko "maitasun/gorroto"  
sentimenduak puri-purian  
daudenean, film honek  
argi pixka bat eman de-  
zake herrialde honek Euro-  
pan duen posizioari buruz.

### Filma



### FARMAZIA

#### ANDUAGA

**San Lorentzo 3** ☎ **943 78 21 16**  
Ekainak 6, 7, 15, 16, 24, 25 eta 26.  
Uztailak 4 eta 5.

#### IGARTUA

**Kale Zaharra 1** ☎ **943 78 01 22**  
Ekainak 8, 9, 17, 18, 19, 27 eta 28.  
Uztailak 6 eta 7.

#### GARATE

**Kale Barria 42** ☎ **943 78 05 58**  
Ekainak 1, 2, 10, 11, 12, 20, 21, 29  
eta 30. Uztailak 8, 9 eta 10.

#### ULDAIN

**Kale Barria 6** ☎ **943 78 11 28**  
Ekainak 3, 4, 5, 13, 14, 22 eta 23.  
Uztailak 1, 2 eta 3.

## ZINEA



### Ekainak 3-6

#### ZINE KLUBA:

-  
**NAGUSIAK:**  
**EL ARMA DEL  
ENGAÑO**



#### GAZTETXOAK:

-

### ORDUTEGIA

**Zine-kluba:** Osteguna (20:00)  
**Nagusiak:** Ostirala (22:00), larunbata  
(22:00) eta igandea (19:30 eta 22:00).  
Astelehena (19:30 / ikuslearen eguna)  
**Gaztetxoak:** Larunbat eta Igandea (17:00)

### Ekainak 10-13

#### ZINE KLUBA:

-  
**NAGUSIAK:**  
**SIN TI NO  
PUEDO**



#### GAZTETXOAK:

-



### MERKATU TXIKIA

**ETXEBIZITZA** Oñatiar familia batek  
etxebizitza (2 edo 3 logelakoa) alokatu  
edo erosi nahi du. 680 398 022

**ETXEBIZITZA** Ukrainar emakumea,  
semearekin, etxebizitza alokatu nahi  
du. Lana badu eta erreferentziak ere  
bai. 676 168 661.

**ETXEBIZITZA** Etxebizitza erosi nahi  
nuke Oñatiko erdigunean, 120m<sup>2</sup>-tik  
gorakoa. Deitu: 610 466 020.

### ODOL ATERALDIA

**EKAINAK 10 / 16:30-20:30**  
Enpresagintza fakultatean. Txanda  
hartzeko deitu: 943 007 884

**garmendia tejas**

Basozabal Industriadea 5 · N-1, km 417

20212 Olaberría (Gipuzkoa)

T. 943 161 032

[www.garmendiatejas.com](http://www.garmendiatejas.com)





(\*) Itten: arrastua, pistia

## &gt;&gt; HAUSNARRIAN

# Hizkuntza ugarittasuna gure herrixan

## MOU ETA ANDER

Ander: Kaixo, Mou!

Mou: Kaixo!

A: Zu nungua zara?

M: Ni? Senegalgua, Louga Niomre herrikua. Behin esan notsun, ba!

A: Bai, bai, baiña enintzan akordaitten, barkatu! Eta zuk zenbat hizkuntza egitten dozu?

M: Bakarren batzuk bai, bizitzak hala eskatuta: wólofera, nere ama hizkuntza; frantsesa, Senegalgo hizkuntza ofiziala; gaztelania, Espaiñian zihar ikasitakua; ingelesa pittin bat, hori be lagun artian ikasitakua, eta orain euskeriarekin nabil.

A: Jolinas! Zu gure aldian poliglotia zara!

M: Poli zer? Zer esan gura dau horrek?

A: Hizkuntza asko berbetan dakizula, besterik ez!

M: Bai, baiña biharrak eragindda, ez kapritxo. Bizirik irauteko gurataez ikasi bihar izan dittut bizi izan naizen lekuetako hizkuntzak.

A: Eta zela ikasi dittuzu hizkuntza horreik danak?

M: Wólofera etxian eta herrixan; frantsesa eskolan; gaztelania kalia, haruntz eta honuntz ibilita, eta euskeria euskaltegian.

A: Ondo, ondo. Eta hemengo hizkuntziarekin zer moduz moldaitten zara?

M: Uf! Defenditeteo lain jakin arren, zaila egitten xat!

A: Zer, ba?

M: Kontauko dotsut: aspalditxo honetan enaiz kalia asko ibiltten, orduan eztot jente askorik ikusten. Urteten dotenian, jente gehixenak erderaz egitten dost, eta euskeraz egitten dostein apurrak, abixaran egitten dostai berba: xixauxau! Eta nik eztot tautik be entenditten, eta hala ezin, ba, ikasi!

A: **Bueno, Mou, trankil egon, nere lagun danairi esango dostet zurekin, edota, euskeria ikasten dabillen beste edozeiñekin berba egitten daueñian, SOSEGUZ ETA GARBI BERBA EGITTEKO; ikasten dabillenari pazientzia haundixaz lagunduta bakarrik egingo dogu-eta herri euskalduna.**

M: Eskerrik asko, Ander!

A: Ez horregatik, Mou, hori nere kontu!



wolof\_euskara

	HASTEKO
Nakamu!	Kaixo!
Diam nga fanani!	Egun on!
Diam nga yendoul	Arratsalde on!
Naka gudi bi!	Gabon!
Fanani ak diam!	Ondo ki egin!
Sula nekhe...	Mesedez...
Dieredieff!	Eskerrik asko!
Waw	Bai
Dedet	Ez
Ba benem!	Agur!
Bethi kanam!	Gero arte!
Nan nga def?	Zer moduz?
Bakhna!	Ondo!
Bakhna lol!	Oso ondo!
Bakhoul!	Gaitxi!
Tanena!	Erdipurd!
Yow nak?	Eta zu?
Woy sama ndey!	Al amaf!
Man ma! Antton	Ni Antton naiz
Nan nga toudou?	Zeh da zure izena?
Maitane la toudou	Nire izena Maitane da
Gnata at nga am?	Zenbat urte dituzu?
Gnar fouk ak djirom gnet la am. Yow nak?	Nik 28 urte ditut. Eta zuk?
Fo thiossano?	Nongoa zara?
Man Basauri la thiossano	Ni Basauri naiz
Buba wa Senegal la	Buba Senegalekoa da
Fo dekk?	Non bizi zara?
Aretxabaleta la dekk	Ni Aretxabaletan bizi naiz
Sama mag Elgeta la dekk	Nire anaka Elgetan bizi da
Deg na Basque?	Badakuz euskaraz?
Waw, touti	Bai, pika bat!
Touti , damay diang	Guzi, ikasten ari naiz
Fania bibliotek bi nekk?	Non dago liburategia?
Wetou Penthi bi	Udaletxoaren ondoran
Fania wanak bi nekk?	Non dago komuna?
Sa kanam	Dona zuzen!
Sa ndey dior:	Eskumari
Sa thiamogn:	Eskerrian
Thi kaw	Golan
Thi souf	Behan
Thi kanam	Aurrean
Sa guinaw	Atzean

Wólofera-Euskara hiztegia



## ANTXIÑAKO 📷 FOTOGRAFIKAK



### **Korpusak barriro be**

**Izurrirte-denporan** zenbat jardun eta gauza eragotzi eta debekau xakun: etxetik urtetia hasieran, taberna eta jatetxetara fatia luzaruan, zine, teatro eta antzerakuak ikustia, jaialdi eta ospakizunetan parte hartzea. Osasun eta ekonomia aldetik izugarritzko erasanak sufridu dittugu. **Ahazu eziñezko bi urte petral izan dira.** Kostata, baiña gorabehera eta atzera-aurrera askorekin, **emuten dau garai hobatxuan sartu gariela.** Jentiak, gaztiak batez be, fiesta-gosia garbi azaldu dau. Eztakit Oñatiko kale eta auzuetan gauzaketan dan jai-kalendarixo luzia aurren osorik buruketako aukerarik eukiko dogun.

Dana dala, badirudi hemendik aurrera azkenengo urte pareko baiño egoera normaltxuagua ezagutuko dogula. Horrenbestez, **bagillaren 19xan eta aurreko egunetan Korpusak zelebratiteko asmua eta esperantzia badago.** Prozosioño eta guzti, eguraldixak hartarako baimena emun ezker, jakiña. Gure goguenian, egun horretako **prozosiño koloretsuak oso gutxittan itzi xao kalera urtetiar.** Odei-zaparradaren baten erruz, noizian behin. Orain dala hamarkada batzuetako bi argazki dakartzuegu gaurkuan, jaixori gogoratu alde.

Fotografixa bixak plaza nagusixan ataratakuak dira, eta urte askoren tarte barik. Ezkerrekuan **goizeko prozosiñuaren akaberia** agerketan da, sarrittan ikusi doguna, San Migelen buelta-erreberentzia eta guzti. Baiña badako argazkixak berezittasuntxo bat: plazako egonaldixa 1960ko hamarkadiaren erdi aldetik aurrera egitten hasi ziran. Arrazoia? **Prozosiñuaren ibilbidia moztu, laburtu egin zala:** Napparreneko kantoiraiño eta Itturritxoraiño fan biharrian, Kirriñeko kantoian ekin otsain plazarako bueltian hartzen Atzeko kaletik behera. Hori dala eta, prozosiñuaren hiru geldialdixak eta San Migel eta dantzariaren erreberentziak Jau-naren aurrian lekuz aldatu ziran. **Hori guztia 1965ian-edo egin ei zan lehenengo aldiz.**

**Eskumako argazkixak** Korpus eguneko **arratsaldeko dantzen xehetasun bat erakusten dosku:** kontrapasa, banakua, launakua, arku-dantzia eta abarrak egin ondoren, aureskuarekin akabaitten da ekiñaldi hori. Hona hemen bertan agiri diran dantzariak:

**Atzeko illaran:** Roberto Arabaolaza, *Kurpide*; Fernando Iriarte, *Santa Marinakua*; Migel Egaña, *Mielona*; [?]; Joxe Luis Bikuña, *Auzetxe*; Fidel Txintxurreta, *Mardo*; Jabier Alzelai, *Sagasta*; [?]; Anjel Egaña, Migelen anae birkixa.

**Aurrian:** Alejandro eta Jexux Irizar, aitta-semiak, *Auntxolatarrak*, dantza-maixu zaharra eta gaztia, aureskuaren lehenengo pausuetan. **Urtia 1972xa izango da,** seguru asko.


Fotografixak Jexux Irizarrek eskuratu dosku. Argibide gehixenak be *Txutxin*enak dira. Milla esker!



**LANA** 60  
*years*

Innovation from nature

*Egurra eraldatuz,  
gure inguruaren ongizatea eraldatzen dugu*



[www.lana.eu](http://www.lana.eu)

